



EBAZPENA

HEZKUNTZA

SAILBURUORDEARENA, HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN 2010-2011 IKASTURTEA ANTOLATZEKO MODUARI BURUZKOA

AURKIBIDEA

1.- IKASTETXEKO JARDUEREN PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA EGITEKO BALIABIDEAK

- 1.1.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta ikasketa-proiektua
- 1.2.- Ikastetxearen hizkuntza-proiektua
- 1.3.- Kudeaketa-proiektua
- 1.4.- Ikastetxearen urteko plana
- 1.5.- Urteko txostena
- 1.6.- Antolamendu eta Jarduera-Araudia
- 1.7.- Ikastetxeko Elkarbizitzaren Behatokia sortzea eta Elkarbizitza-plana prestatzea
- 1.8.- Hezikedetza
- 1.9.- Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua

2.- IRAKASLEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK

- 2.1.- Irakaslanaren antolamendua
- 2.2.- Urteko jardunaldia
- 2.3.- Asteko jardunaldia
- 2.4.- Zuzendaritza-karguak
- 2.5.- Irakasleen bertaratzea
- 2.6.- Ziklo/Etapa-taldeak
- 2.7.- Tutoretzak
- 2.8.- Praktiketan izandako irakasleen tutoretza

3.- IKASLEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK

- 3.1.- Eskola-ordutegia
- 3.2.- Eskolaz kanpoko ekintzak
- 3.3.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta
- 3.4.- Ospitaleko edo etxeko arreta edo arreta terapeutiko-hezigarria behar duten ikasleak
- 3.5.- Berandu sartzen diren ikasleen eskolatzea
- 3.6.- Irakasleen eskubideak eta betebeharrak
- 3.7.- Irakasleen ordutegia eta ikastetxeko ordutegiak aldatzea
- 3.8.- Irakasleen bertaratzea
- 3.9.- Erlijioa – Hezkuntza-jarduera berezia

4.- IKASLEGOAREN EBALUAZIOARI BURUZKO ARAUAK

- 4.1.- Ebaluazio-bilerak
- 4.2.- Kalifikazioei buruzko erreklamazio-eskubidea
- 4.3.- Salbuespenak eta baliokidetzak

5.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA**6.- LANGILE BEREZIAK**

- 6.1.- Jangelako arduraduna: Zuzeneko kudeaketako jangelak
- 6.2.- Administrazio-kudeaketaren arduraduna
- 6.3.- Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programako irakasleak

7.- HEZKUNTZAKO LAN KONTRATUKO LANGILEAK ETA HEZITZAILEAK

- 7.1.- Zeinu-mintzairaren interpretea
- 7.2.- Jardunaldia betetzearen kontrola

8.- IRAKASLEGOAREN PRESTAKUNTZA**9.- TEKNOLOGIA BERRIAK - IKT****10.- IKASTETXEETAKO OSASUN ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUTEGIA**



HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA 2010-2011 IKASTURTEA

HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA

Ebazpen honek Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 2010-2011 ikasturtearen hasiera eta garapena arautuko du, ikastetxe horiei dagozkien aietan.

Ikastetxeko Zuzendariak behar diren neurriak hartuko ditu, Ebazpen honen edukin osoa ikastetxeko irakasle guztiek eta bakoitzak ezagutzen dutela ziurtatzeko.

Halaber, legez ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenei (O.O.G.) aitortzen zaizkien aginpideak eta Erabaki honek azaltzen dituen gaiak kontuan izanik, **ikastetxe bakoitzeko Zuzendaritza-taldeak Erabaki honen edukinaren berri emango dio aipatutako Organoari, 2010-11 ikasturte hasieran egingo den lehenengo bileran.**



1.- IKASTETXEKO JARDUEREN PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA EGITEKO BALIABIDEAK

Euskal Eskola Publikoaren Legeak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz ezartzen duten 175/2007 eta 97/2010 Dekretuek eta Haur Hezkuntzako curriculumaz zehazten duten 12/2009 eta 121/2010 Dekretuek, azaltzen dutenez, zenbait jarduera antolatzeko, onartzeko eta gauzatzeko aukera izateak adierazten du ikastetxeek autonomia dutela.

Ikastetxea antolatzeko baliabideen artean hauek nabarmendu daitezke:

- 1) **Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, hizkuntz proiektua, eta ikasketa-proiektua.**
- 2) **Kudeaketa-proiektua.**
- 3) **Urteko plana.**
- 4) **Urteko txostena.**
- 5) **Antolamendu eta jarduera-araudia.**

Erabakiaren lehenengo atalburu honetan plangintzaren alderdiak azalduko dira eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek ikasturte honetan kontuan izan beharreko lehentasunak edo gutxieneko ezaugarriak ezarriko dira.

Antolaketa-baliabideek, IHPEk, IPEk eta AJAek duten garrantzia eta interesa aintzat hartuta, ikastetxeek horiek eguneratzeko eta egokitzeko lanean jarraitu behar dute.

1.1.- IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA ETA IKASKETA-PROIEKTUA

Bi proiektuak elkarrekin oso lotuta daude eta ikastetxeetako pedagogi autonomiaren adierazle dira: eskola-elkarteko sektoreek hezkuntzako aukera baten alde egin duten apostua (hezkuntza-proiektua) eta horrek irakaskuntzan izango duen adierazpena (ikasketa-proiektua).

Ebazpen honetan ez dira azaltzen proiektu hauetako bakoitzak jaso behar dituen alderdiak edo zein organori dagokion lantzeko eta onartzeko ardura, Euskal Eskola Publikoaren Legean eta Hezkuntzako Lege Organikoan arautu baitziren.

Ikastetxe guztiek antolamendurako bi baliabide horiek, beti hobegarriak eta aldiari aldiari berrikustekoak, edukitzea beharrezkoa da. Ikastetxe bakoitza izango da, bere ibilbidearen eta ahalmenen arabera, 2010-2011 ikasturtean lehentasuna zein arlori eman eta arlo bakoitza nolako sakontasunarekin landu erabakiko duena.

Ikastetxe bakoitzak ahal beste zehaztu eta garatuko ditu ikastetxearen hezkuntza eta ikasketa-proiektuak burutzeko erabakiak. Eskatzen dena da erabaki horiek idatzita azaltzea, ikasturtean zehar lortu duten zehaztapen-mailarekin. Gogoeta-prozesuaren lehen emaitzatat eta gero eman beharreko urratsen oinarritzat hartuko dira erabakiok.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikulua dioenaren arabera, irakasle-talde guztiak eta irakasleak eurak ikastetxearen hezkuntza-proiektuari (IHP) eta ikasketa-proiektuari (IIP) loturik egongo dira. Horiei men egitearen barruan, eskolako jarduerak lantzeko eta programatzeko nahiz bakoitzak bere arloko jarduera-egitarauak aurrera eramateko egoki irizitako erabakiak hartu ahal izango dituzte. Irakasle bakoitzaren erabaki horiek, dena den, beti egon behar dute IHPk eta IIPk ezarritakoaren mende.

Egoera horrek bultzatu behar du ikastetxeek prestakuntza eta berriztapen-prozesuak planteatzera. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila prozesu horiek laguntzen saiatzen da, prestakuntza-proiektuarako dirulaguntzetarako deialdien bitartez, ikastaroetara bertaratzearen bitartez, eta eskualdeko zerbitzuek edo kanpoko eragileek eskaintako aholku-lanaren bitartez. Abian jarriko diren prestakuntzako eta berrikuntzako prozesuek zerikusia izan behar dute diagnosi-ebaluazioan lortutako emaitzen azterketan oinarrituta ezarritako hobekuntza-ildoekin, zehazki, eta gaitasunen lanketarekin, oro har.

“Aniztasuna kontuan hartzea” izeneko atal bat sartuko da Ikastetxearen Curriculum Proiektuan. Horrek zehaztuko du zer ekimen gauzatuko dituen ikastetxeak ikasle guztiak beren aukerak gara ditzaten ahal den neurri handienean; horretarako, ikaskuntza-oztopoak desagerrarazi beharko dira, eta eskola-arrakasta sustatu.

Ikasketa-proiektua errazago egiteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak “Ikastetxearekin ikasketa proiektua egiteko gida”, izeneko liburua argitaratu du (Eusko Jaurlaritzaren Artigalpen Zerbitzua).

1.2.- IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA

Hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilpenarekin lotutako alderdi guztien plangintza egingo duen agiria da hizkuntza-proiektua, ikastetxeek egindakoa, beren hezkuntza-esparruan aplikatzeko. Hezkuntza-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du hizkuntza-proiektuak, eta zehaztu egingo zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Agiri horretan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxeko beste agiri batzuetan; esaterako, Antolakuntza- eta Jarduera-araudian, Urteko Planan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten printzipioetan, eta abarretan. Izan ere, azken horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.

Ikastetxe bakoitzak, beren hezkuntza-proiektua aintzat hartuta, beren ezaugarrietara moldatu eta egokituko dute Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz ezartzen duten 175/2007 eta 97/2010 Dekretuek eta Haur Hezkuntzako curriculumaz zehazten duten 12/2009 eta 121/2010 Dekretuek egindako curriculum-planteamendua; halaber, aintzat hartuko dute hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela

bide egokiena elebitasunaren helburua lortzeko eta jakintza-arlo eta irakasgai bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko.

Hizkuntza-normalizaziorako proiektua ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren atala izango da.

1.3.- KUDEAKETA-PROIEKTUA

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak eta baita ere LOE deritzonak ikastetxe publikoen autonomia aitortzen dute. Autonomia horren agerbideetako bat ikastetxeek beren jarduera ekonomiko-finantzarioa kudeatzeko duten ahalmena da, ikastetxeak bere Kudeaketa-Proiektua onartu eta burutzean gauzatzen dena.

Ikastetxeek beren Kudeaketa-Proiektua izango dutelarik, Ordezkaritza Organo Gorenak eman beharko dio onespena, eta haxe bera izango da betearazteaz arduratuko dena eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 28.3 artikuluan xedatutakoaren arabera proiektuaren betetze-mailaren ebaluazioa egingo duena.

1.4.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

Zuzendaritza-taldeak koordinatu behar ditu ikastetxearen urteko plana gauzatzeko lanak; horretarako, egoera bakoitzean, dagokion kide anitzeko organoa izango du. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak onartu behar du aipatutako plana, Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta Hezkuntzako Lege Organikoak irakaskuntza-jardueren programaren gainean klaustroari ematen dizkion eskumenen kaltetan izan gabe. Gainera, bertan sartu beharko dituzte aurreko ikasturteko diagnosi-ebaluazioko emaitzen azterketa egin ondoren zehaztutako hobekuntza-proposamenak.

Ikastetxeek 2010-2011 ikasturterako Urteko Plana egingo dute urte hasieran, ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzeo eta kudeatzeko baliagarria izango dena.

Plan horrek ondoko hauek biltzen ditu bere baitan:

a) Irakas-jardueren programa.

Egitarau hau lantzea irakasleen Klaustroari dagokio eta, hala egokituko balitz, hura ordeztu dezakeen batzorde bati.

Irakas-jardueren programan ikasturtean zehar ikastetxearen antolaketa eta garatu behar diren ekintzak biltzen dira, ikasleak eta dauden baliabideak kontuan izanik: irakaslegoari lanak banatzeko irizpideak, irakas eta ikastetxean egon beharreko ordutegiaren banaketa, ikasleen eta irakasleen ordutegiak, ikasleak taldeetan banatzeko irizpideak, orientabide-plana, ikasleentzako laguntza eta errefortzu-ekintzak antolatzea, guztientzako tokiak banatzea, irakas-baliabideak antolatzea, ebaluazio-datak eta abar. Eskolako jardueraren agirian agertzen diren datuak ez dira urteko planean errepikatu beharko.

Irakaskuntza-jardueren programan sartuko dira argitaratutako curriculum berrietara egokitutako irakasgaien programazio orokorrak. Baita, ikasketa-proiektua egiteko plana eta helburu hau lortzeko ikasturtean zehar egingo diren ekintzak adieraziko dira.

Programa honetan, orientabide eta irakasleen aldetik ikasturtean zehar garatu behar dituen helburuak eta ekintza nagusiak adieraziko dira.

Konkretuki, ikastetxeak parte hartutako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Esperientzi eta Programak aipatuko dira, eta ikasturtean zehar ikastetxeak bultzatutako proiektuak, batez ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, edo beste Sailek eta Euskal Herriko, zein Estatuko, edo Europako Elkarteko beste erakundek onartutakoak.

b) Prestakuntza-jarduerak, eskolaz kanpokoak eta osagarriak.

Urteko planaren zati hau lantzea Zuzendaritza Taldeari ala Batzorde Iraunkorrari dagokio, Ordezkaritza Organo Gorenak onartu behar duelarik.

Programak bilduko ditu, behinik behin, ikastetxean egindako prestakuntza-proiektuak eta lanorduetan egingo diren eta ikastetxearen antolaketan eragin izango duten prestakuntza jarduerak.

Urteko Planean hala adierazitako jardueretan derrigorrezkoa izango da, salbuespenak salbuespen (lanaldi murrizketa, kasu bereziak...), irakasleen partehartzea, prestakuntza-jardueratarako asteko ordubeteari baitagokio. Prestakuntza jarduera hauen antolaketa egiteko, aste batzuetako ordubeteak metatu ahal izango dira saio luzeagoak eta eraginkorragoak egin ahal izateko.

Ikastetxeko 2010-2011 ikasturteko prestakuntza-ekintzak ikasturte horretako prestakuntza-proiektuekin edo berriztapen-proiektuekin bat etorrira gauzatu beharko dira. Ez da beharrezkoa izango, horrenbestez, ekintzak beste era batera gauzatzea, ez eta agirietan horri buruzko aipamenik egitea.

Ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen programak ondoko hauek bilduko ditu bere baitan:

- 1.- Jarduera osagarriak: Ikasleekin ikastorduetan egiten diren ekintza didaktikoak eta, programaren barruan sartzen badira ere, izaera berezia dutela jotzen da, bai egiten diren unearengatik edo tokiarengatik edo baita ikastetxeari suposatzen dioten baliabideengatik edo eskuhartzearengatik ere. Ekintza horiek ikasle guztiei zabalduak egon behar dute. Horien artean nabarmentzekoak dira:

- barnetegiak, nekazaritza-eskolak.
- ikastetxean egindako festak,
- hezkuntza-ekimen bereziak,



- gelaz kanpoko ekintzak: ikustaldiak, landa-lanak...,
- irteerak, ikasturte amaierako bidaiak, trukeak...

2.- Eskolaz kanpoko ekintzak: Ikasleekin ikastorduetatik kanpo egin eta partehartzea borondatezkoa duten ekintzak, curriculumarekin erlazio zuzenarik gabekoak. Ekintza horien plangintza egiterakoan helburuak, arduradunak, unea eta tokia zehaztuko dira eta baita ikasleek nola parte hartuko duten ere. Ekonomi ezaugarriek edo ondorioek urteko kudeaketa-programan azaldu beharko dute.

Kontuan izan behar da ikastetxea dagoen herritik kanpo egiten diren ekintzetarako guraso edo legezko tutoreen baimena beharrezkoa izango dela, Ebazpen honen beste atal batek adierazten duen moduan.

Ekintzak ikastetxea dagoen herritik kanpo egiten direnean eta irakasleak bertan gau edo gauak pasatzen dituenean, Klaustroak, OOGren oniritziak, hainbat ordutako konpentsazioa ezarri ahal izango dio irakasle horri. Ordu horiek ordezkatzeko ikastetxearen ardura izango da, barne-antolaketa bidez.

c) Urteko kudeaketa-programa

Ikastetxeko Kudeaketa Proiektua Urteko Kudeaketa-Programaren bidez gauzatzen da urtez urte eta aurrekontua osatzea eta onartzea da programa horren atalik garrantzitsua. Aurrekontua osatu eta onartzeko, ikastetxeek bete behar izango dute zuzendarien 28ko 196/1998 Dekretuan xedatutakoa (98-09-14 eta 98-09-23ko E.H.A.A.)

Urteko planaren zati hau lantzea Zuzendaritza-Taldeari ala Batzorde Iraunkorrari dagokio eta onartzea Ordezkaritza-Organorenaren.

Programa honetan gasturen bat eragingo duten jarduerak sartuko dira, jantokia eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak barne. Hainbat atal bereizi beharko dira: diru-sarrerak, aurrikuspenak eta gasturako irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak eta abar.

d) Urteko Elkarbizitza Plana (UEP)

Elkarbizitzarako hezkuntza, honek garrantzia handia baitu hezkuntza-komunitatekide guztien ongizatean, baita ikasleen garapen pertsonal zein sozialean eta haien errendimendu akademikoan ere, helburu bihurtu da.

Beharrezkoa da Elkarbizitza Plana izatea ikastetxe guztietan eta ikastetxeko Ordezkaritza-Organorenaren zeregina izatea *“Elkarbizitza-, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna- eta gatazken ebazpen baketsuaren aldeko neurriak eta ekimenak proposatzea”*.

Euskal Hezkuntza-Sistemak elkarbizitzarako eta hiritartasun demokratikorako, aktiborako zein erresposntablerako hezkuntza sustatzen du. Hezkuntza hau justizia, tolerantzia, errespetua, solidaritatea... bezalako balioetan oinarrituta dago. Ikasleengan gatazkak eta arazoak ebazteko kompetentziak garatzen duen hezkuntza da. Hezkuntza

honek garatuko ditu ikasleengan erantzukizunez beraien bizitzaren kudeaketa onartu, norberarekin zein besteekin harreman positiboak eratu, erabakiak hartu, zentzu kritikoarekin jokatu eta ingurua sormenez transformatzeko ekintzak hasteko behar dituzten kompetentziak.

e) **Tutoretza Plana (TP)**

Hezkuntza-orientabidea etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da, eta hezkuntza-jardueran sartuta dago. Ikasleei bere proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen trebatzeko gaitasunak eskuratzen laguntzea da orientabidearen helburua.

Orientazioko edukiek eskolako curriculum guztian dute eragina, eta zeharka garatu behar dira, alor guztietan. Hala ere, ikasketa horien zati bat esplizituki landu beharko da tutoretzan, hazkuntza pertsonalerako garrantzia duelako, ondorengo ikasketetan eragina duelako, eta bizitzako hainbat egoeratan erabil daitekeelako.

Ikastetxearen heziketa-proiektuaren barruan, tutoretza-plana da ikasleen eskolatze-aldi osoan orientazio eta jarraipen ekintza guztiak antolatzeko egitura. Oinarrizko gaitasunak lortzea da orientazio eta jarraipen ekintza horien helburua.

Tutoretza-lanaren helburua da ikasleak bere burua ezagut dezala eta onar dezala, sozializazio-prozesua hobe dezala, erabakitzen eta ikaskuntza-arazoak konpontzen ikas dezala, eta bere proiektu pertsonal eta profesionalaren protagonista senti dadila.

Tutore-taldeari dagokio tutoretza-plana (TP) egitea, aholkulariak eta/edo etaparen koordinatzaileak aholkatuta.

Horrez gain, tutoreari dagokio tutoretza-plana garatzea, irakasle-taldearekin elkarlanean eta talde-gelan eragina duten beste eragile batzuekin koordinatuta. Halaber, aholkulariaren laguntza izango du, ikasleen aniztasunari erantzuten laguntzeko eta erantzungo diola bermatzeko, bai eta tutoretza-lana berritzeko eta etengabe hobetzeko ere.

1.5.- URTEKO TXOSTENA

Memoria ekainaren azken asteetan eta irailaren lehenengo asteetan egingo da; zehazki, zuzendaritza-taldea arduratuko da egiteko hori koordinatzeaz. Ikastetxearen Urteko Plana zenbateraino bete den aztertuz eta lortutako eskola-emaitzak aintzat hartuz, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du; hau da, ondorioak atera eta hurrengo urterako hobekuntza-proposamenak egingo dituzte, eta, horrez gain, lehenetasun batzuk jarriko dituzte, ikastetxearen hurrengo planean helburutzat hartuko direnak.

Urteko Memoria OOGk edo Eskola Kontseiluak onartu behar du, eta kopia bat ikastetxeko idazkaritzan jasoko da Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egoteko.

Memoria eta Ikastetxearen Urteko Plana urriaren 30a baino lehen egin eta onartu behar dira, ezinbestean.

MEMORIA eta URTEKO PLANA labur eta zehatz egingo dira, ikastetxean bertan erraz erabili ahal izateko, eta gero, idazkaritzan jasoko dituzte Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura; hau da, egiten dituen bisitaldietan egoki irizten dituen azterketak eta ebaluazioak egin ditzan.

OHARRA: Lurraldeko Ikuskaritzan Urteko Plana eta Memoria egiteko ereduak daude.

1.6.- ANTOLAKUNTZA- ETA JARDUERA-ARAUDIA

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren aldaketa ezartzen du laugarren xedapen gehigarrian, eta horretarako sei hilabeteko epea finkatzen du, dekretua argitaratzen denetik hasita..

Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako berezko dokumentua da. Agiri hori derrigorrezkoa da Euskal Eskola Publikoaren Legeko 29. artikulua hala ezarri duelako.

Hona araudi horren gutxieneko edukia:

- Ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako egituraren definizioa.
- Arauak, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko begirunea eta bizikidetzak bermatzeko eta lokal-instalazioak egoki erabiltzeko.
- Ebaluazioetan erreklamazioak egiteko araubidea.

Arestian aipatutako dekretura egokitzeko ikastetxeek AJA hori alda dezaten, Hezkuntzako Ikuskaritzak eredu orientagarri bat jarri du ikastetxe guztien eskura, baina ez da nahitaezkoa.

1.7.- ELKARBIZITZAREN BEHATOKIA ETA ELKARBIZITZA-PLANA

Hezkuntzaren oinarrizko helburuetako bat elkarrekin bizitzen ikastea da. Elkarbizitza positiboa sustatu eta hezkuntza-komunitate osoa horretan inplika dadin, ikastetxean Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko eta Urteko Elkarbizitza-plana sortzeko eskatzen diegu oraindik egin ez dituzten ikastetxeei (eskola txikiei izan ezik). Bestetik, ikastetxearen sektore guztietako ordezkariak izan beharko dute behatoki horren kide. Aurrerantzean Elkarbizitzaren Behatokia eta Urteko Elkarbizitza-plana Urteko Planean eta ikastetxearen Memorian txertatuko dira.

Ikastetxeek, 2010-2011 ikasturterako *Urteko Elkarbizitza Plana* (UEP) landu badute, eta elkarbizitzaren behatokia sortu badute, plan horretan jasotako jarduera



guztiak jarriko dituzte abian. Hori egin ez dutenek bi urteko epea izango dute (2011-2012 ikasturtearen amaierara arte) hori lantzeko.

1.8.- HEZIKIDETZA

Ikastetxeek hezikidetza integratuko dute hezkuntza-kudeaketako txostenetan (hezkuntza-proiektuan, ikasketa-proiektuan, AJAan, elkarbitzita-planetan, tutoretza-planean, urteko planean...); ikasmaterial sexistak baztertue, eta hezikidetza-irizpideak lantzen dituzten ikasmaterialak sartuko dituzte.

Era berean, komenigarria da hezkuntza-komunitateko kide guztiei otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. kapituluko 1. sekzioak (Unibertsitate-irakaskuntzak) dioenaren berri ematea, eta batez ere 28, 29, 30, 31.1 eta 31.3 . artikuluetan jasotakoak 4/2005 Legea, Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako Legea).

1.9.- GELA EGONKORREN CURRICULUM-PROIEKTUA

Gela egonkorreko curriculum-proiektua prestatu eta onartzeko, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpidei buruzko uztailaren 30eko Aginduaren 29. artikulua ezarritakoari jarraituko zaio (HEAA, 1998ko abuztuaren 31koa).



2.- IRAKASLEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK

2.1.- IRAKASLANAREN ANTOLAMENDUA

Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak xedatutakoaren arabera, Zuzendaritza-Taldearen ardura da irakasle-taldeak antolatzea, eta ikasturte hasieran, irakasleei ikastetxeko zein unitate esleituko zaien irizpideak zehaztea, honako jarraibidetan oinarrituta:

- a) Irakasle bakoitzak ikasle-talde bera izatea, taldeak zikloa amaitu arte.
- b) Irakasleak bere lanpostuaren titularitatearen araberrako espezializazioa edukitzea.

Irakastaldia hasi baino lehen, Zuzendaritza-Taldeak maila, ziklo, jakintzagai eta ikasle-talde ezberdinetarako irakasleak esleituko ditu. Esleipena egiteko, baliabidea justifikatzen duen helburua aintzat hartuko da, helburu horren mesedetan izan dadin.

Irakasle bakoitzaren eskola-ordutegia betetzeko, Zuzendaritza-Taldeak irakasle bakoitzaren espezialitate guztiak hartuko ditu kontuan.

Atzerritar Hizkuntza (Ingelesa edo Frantsesa), Hezkuntza Berezia (PTE edo IIL), Hezkuntza fisikoa eta Musika postuetara atxikitako irakasleen kasuan, postu horietarako gaituta ez badaude, Zuzendaritza-Taldeak, salbuespen gisa eta aldi baterako, irakasle horiei beste postu hutsetako jarduerak esleitzeko aukera izango du; edo bestela, beste postuetara atxikitako irakasleekin postua trukatu dute, baldin eta postu horietako baldintzak (hizkuntza-eskakizuna eta irakasgaitauna) betetzen badituzte. Hala ere, esleipen aldaketa horrek ez du hasierako atxikipena aldatuko, eta postu horietan arituko diren irakasleek ez dute eskubide berririk izango. Beraz, irakasle horiek atxikitako postuan jarraituko dute administrazio xedetarako. Aldaketa horiek eremu bakoitzeko Hezkuntza Ordezkaritza eta Ikuskaritzari jakinarazi beharko zaizkio.

2.1.1.- Ikastetxeko ordutegiaren onespen eta ageritasuna

Ikasketa-Buruak eginiko eta Zuzendariak onartutako ordutegia bete behar du irakasleak. Hari buruzko edozein erreklamazio Hezkuntza Lurralde Ordezkarriak erabakiko du, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena eman ondoren.

Ikastetxeko ordutegia irakasle-gelako iragarki taulan egon beharko da beti, ikus daitekeen lekuan, baita ikasketa-buruzagitzan eta ikastetxeko estamentu guztiek ikus dezaketen beste leku batean ere. Horrez gain, ikastetxea momentu oro zein egoeratan dagoen jakinarazten duen informazioa ere ikusgai egon beharko da, batez ere irakasle



bakoitzaren ordutegiak eta lantokia adierazi beharko dira, bai eskola-orduetan nahi tutoretza-orduetan eta abar.

Halaber, Zuzendaritzako partaide bakoitza ikastetxean dagoeneko ordutegia ere agertuko da. Informazio hori Ordezkaritza Organo Gorenari helaraziko zaio, eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokituta egon beharko du.

2.2.- URTEKO JARDUNALDIA

Dagokion hezkuntza-akordioan araututako jardunaldi-motak eta egutegia edozein direla ere, 1.462 ordukoa izango da irakaskuntzako arduraldi erregimena.

Ebazpen honetan zehazten dira asteko jardunaldiko jarduera eta horren banaketa ikastorduetan, bai eta ordutegi osagarria eta ikastetxean igaro beharreko ordutegia ere.

Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 50. artikuluan arabera, irakasle funtzionarioek eskubidea izango dute ordaindutako hogeita bi egun baliouduneko oporraldia izateko urte natural bakoitzean, edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien egunetako oporraldia izateko. Ondorio horietarako, larunbatak ez dira joko egun baliodontzat.

Oporraldi hori abuztuan izango da urtero, eta inoiz ez da hartuko iraileko egunik.

Oporraldia eten egin ahal izango da horren barruan gaixoaldi edo istripuren bat gertatuz gero. Gorabehera horiek pasa eta medikuaren alta jaso ostean, interesdunak oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango du.

Aldi bakar batean hartuko da hartu gabeko oporraldia, eta, ahal izanez gero, irakastordurik ez dagoenean.

Aurreko artikuluan araututako oporraldiaren aurreko egun moduan metatuko dira Eusko Jaurlaritzaren mendeko langile publikoentzat araututako egunak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 48.1.k) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Negoziazio Mahai Orokorrak 2009ko azaroaren 18an hartutako akordioan (EHAA, 2010-02-26koa) xedatutakoari jarraiki, bai eta lege horretako 48.2. artikuluan ezarritako norberaren gauzetarako egun gehigarriak ere.

2.3.- ASTEKO JARDUNALDIA

2.3.1.- Ohiko jarduera duten irakasleak

Herri-Jardunaren Erreformatarako Neurrien, 1984ko abuztuaren 2ko 30/1984 Legean oinarrituz, jarduera-arau bakarra onartzen da orokorki, gainontzeko herri-funtzionarioentzat ezarri dena bezalakoa.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Irakasleak astean 30 ordu igaro beharko dute ikastetxean, eta horietatik 23 ordu gehienez izango dira irakastorduak. Jardunaldia goizez eta arratsaldez izango da, eta prestakuntzarako arratsalde bat izango dute libre, ikastetxe bakoitzeko Ordezkaritza Organo Gorenak onartu ondoren.

Ikastetxeak ordu-kreditu bat du, eta, horren ondorioz, irakasle-kopuru jakin bat. Irakasle horiek, ikasleei eskola emateko premiak betetzeaz gain, Urteko Planean zehaztutako jarduera eta proiektuak gauzatzeko aukera ematen dute. Zuzendaritza-taldeari dagokio ordu-kreditu hori kudeatzea, eta irakasle bakoitzari esleitu behar dio bai irakaslan bai haren ordutegi pertsonala osatzeko bete behar duen berariazko zeregina.

Horretarako, lehenetsun hauek aintzat hartuko dira:

2.3.1.1.- Kide bakarreko organoak: Zuzendaritza-funtzioak.

Kide bakarreko organoek beren karguko lanak betetzeko beharrezko orduak bermatuko dira. Unitate-kopuruak, ikastetxeko antolakuntza eta soberan dauden kreditu-orduak kontuan hartuta, Zuzendaritza-Taldeak irakas-ordutegia murrizteko proposamena egingo dio Ordezkaritza Organo Gorenari, azken horrek erabaki dezan.

Halaber, Zuzendaritza-Taldeak, ikastetxearen antolakuntza eta bertako organo nahiz hezkuntza-batzordeen funtzionamendua kontuan hartuz, ziklo-koordinatzaileei beren funtzioak betetzeko behar duten ordu-kopurua esleitu die.

Eskola-ordutegian, beti egongo da Zuzendaritza-Taldeko kide bat ikastetxean. Hala ere, Ordezkaritza Organo Gorenak zuzendaritza-taldeko kideei ikastetxean igaro beharrezko ordu-kopurua malgutuko die, eskola kanpoko jardueratan karguko lanetan aritutako denbora konpentsatzeko, baldin eta lan edo jarduera horiek jarduera-programan jasota badaude.

2.3.1.2.- Irakaskuntza elkarbanatua: Heziketa-errefortzua.

Ohiko jardueraz estaltzen ez diren irakastorduak heziketa-errefortzura bideratuko dira. Heziketa-errefortzua neurri-multzoa da. Hezkuntza-neurriak dira, norbanakoentzakoak edo taldearentzakoak. Neurri horiek irakasleak berak diseinatuak dira, ohiko eskola-zailtasunetan ikasleak laguntzeko. Ikastetxe bakoitzak ezarri beharko du bertako Hezkuntzako Errefortzuko Plana, eta bertan jasoko dira ikasleen laguntza-premiak asetzeko egokien ikusten diren ekintza eta estrategia:

- jarduera batzuetan, taldean irakasle bat baino gehiago egotea.
- ikasketa-arazoak dituzten ikasleekin, gelatik kanpo errekuperazioak egitea...
- etxeko irakaskuntza behar duten ikasleei heziketa-arreta ematea.

- halaber, kreditu-orduak aldatzeko aukera aurreikusten da, ikasturtean zehar eskolaratze berrien ondorioz sortutako premiei erantzuteko (gutxiengoak, etorkinak...).

Errefortzu-plan horrek Aniztasunari arreta emateko planean sartuta egon behar du.

2.3.1.3.- Irakasleak ordeztea

Irakasleak ordezkatzeko, EAEko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenean xedatutakoaren arabera.

2.3.1.4.- Berandu sartzen diren ikasleentzako arreta

Kreditu-orduak epe arruntetik kanpo eskolaratutako ikasleei arreta gehiago emateko erabiliko dira batez ere; zehazki, hezkuntza-sistemara berandu sartzen diren ikasleei laguntzeko.

Ikasle hauentzako arretarako neurriak ikastetxe osoan aplikatuko dira, Ordezkaritza Organo Gorenak onespina eman ondoren.

2.3.1.5.- Ikastetxeko irakas-baliabideen antolaketa

Halaber, irakastordu batzuk jarduera hauek antolatzeko esleitu daitezke:

- Ikastetxeko ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak
- Liburutegia
- Laborategia
- Lantegiak

Irakastorduez gain, astean 7 ordu igaroko dituzte ikastetxean, besteak beste jarduera hauek egiteko:

- Elkarrizketak gurasoekin.
- Ziklo, jakintzagai eta hezkuntza-programetako irakasle-talde bilerak, batez ere gelako programak egiteko.
- Hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bat badago, PTErekin, aholkulariarekin, Hezkuntza-Laguntzarako Adituarekin eta gainontzeko profesionalekin bilerak.
- Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak onartutako prestakuntza eta berrikuntza-proiektuak.
- Ebaluazio-bilerak
- Klaustroak.
- Taldeko agintaritza organoetara joatea.
- Hezkuntza hobekuntzarako eta ikerketa-jarduerak.

Ikastetxe guztiek, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta (prestakuntza-proiektuak egitea, ziklo, sail edo etapa bateko programazioak egitea, Hezkuntza Proiektua, AJA eta abar), egun batean bi ordu kontzentratu ahal izango dituzte,

baldin eta ikasleen ordutegia aldatzen ez bada, irakasle guztiei eragiten badie eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartzen badu.

Ikastetxeari zuzenki eskaintzen ez zaion ordutegian ekintza hauetarako izango dira: irakaskuntzako irakastekintza lektiboen prestaketa, azterketak zuzentzea, irakaslearen hobekuntza profesionala, eta orokorki, irakaskuntzari lotzen zaizkion eginkizun eta betebeharrak. Ordutegi horretan, irakasleek ez dute derrigorrez ikastetxean egon behar.

2.3.2.- Jardun murriztua duten irakasleak

Lana eta familia-bizitza bateratzeko lanaldia murriztea eskatzen denean, ikastetxeetako zuzendariek ahal duten guztia egingo dute interesdunaren ordutegiak lana eta familia-bizitza batera ditzan.

Jardunaren 1/2 murriztea

Lan-jardunaren 1/2 murrizten den kasuetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek **astean 15 orduko jarduna izango dute zuzenean ikastetxeari dedikatzeko**. Hortik **12 ordu irakastorduak izango dira, eta beste 3 orduak**, honela banatuko dira:

- Klaustroak / Ebaluazio-bilerak
- Gurasoekin bilerak
- Ikastetxeak aukeratutako jarduerak

Ikastetxean igaro beharreko orduak horrela banatuko dira: egunero gutxienez 2 ordu igaro beharko dira, gutxienez asteen 4 egunetan.

Ikastetxeari zuzenki eskaintzen ez zaion asteko ordutegian ekintza hauetarako izango dira: irakaskuntzako irakastekintza lektiboen prestaketa, azterketak zuzentzea, irakasleen hobekuntza profesionala, eta orokorki, irakaskuntzari lotzen zaizkion eginkizun eta betebeharrak.

Jardunaren 1/3 murriztea

Lan-jardunaren 1/3 murrizten den kasuetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek asteen **20 orduko jarduna izango dute zuzenean ikastetxeari dedikatzeko**. Hortik **15 ordu irakastorduak izango dira, eta beste 5 orduak**, honela banatuko dira:

- Klaustroak / Ebaluazio-bilerak
- Gurasoekin bilerak
- Ikastetxeak aukeratutako jarduerak

Ikastetxean igaro beharreko orduak horrela banatuko dira: egunero (astelehenetik ostiralera), gutxienez 2 ordu egon beharko dira ikastetxean.

Ikastetxeari zuzenki eskaintzen ez zaion asteko ordutegian ekintza hauetarako izango dira: irakaskuntzako irakastekintza lektiboen prestaketa, azterketak zuzentzea, irakasleen hobekuntza profesionala, eta orokorki, irakaskuntzari lotzen zaizkion eginkizun eta betebeharrak.

Ordezko irakasleak asteko 10 orduko ordutegia izango du, eta 10 ordu horietatik 8 irakastorduak izango dira. Beste 2 orduak jarduera hauetarako erabiliko dira:

- Klaustroak / Ebaluazio-bilerak
- Gurasoekin bilerak
- Ikastetxeak aukeratutako jarduerak

Ordezko irakaslearen ordutegiak irakasle titularraren ordutegia osatu beharko du, irakasleen arreta bermatzeko.

2.3.3.- Irakasleen ordutegia

Irakasleak, dagokion inprimakian, Erabaki honetako norabideen arauera, bere 30 orduko asteko ordutegia idatziko du.

Irakasle bakoitzaren ordutegian, irakastorduko eta irakastorduetatik kanpo egin beharreko lanak zehaztuko dira. Halaber, irakasleen lanordu gutziak Ikastetxeko Planean jaso beharko dira, eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartu beharko ditu.

Hezkuntza Ikuskaritzak irakasleen ordutegiak aldatzea onartuko du, Ikastetxeko Zuzendaritzak eskaera idatziz egiten badu soilik, eta baldintza hauek guztiak betetzen baditu:

- Ikastetxeak Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-proiektuetan parte hartzea.
- Proposatutako ordutegi berriak klaustro osoaren ordutegia aldatzea eta irakasle nahiz irakasleen asteko eskola-orduen kopurua ez gutxitzea.
- Irakasleen eskola-ordutegien aldaketak ordu erdi baino gutxiagokoak ez izatea, ostiral arratsaldeko eskola-ordutegia ez aldatzea, eta goiz eta arratsaldeko ordutegiaren arteko gutxieneko tartea errespetatzea.
- Aurreko baldintzak betez, prestakuntzarako arratsaldeko saio bat ezartzen duen ordutegiaren aldaketa Ordezkaritza Organo Gorenak onartzea, eta irakasle guztien gurasoek aintzatestea.

2.3.4. 60 urte baino gehiago eta 65 baino gutxiagoko irakasleak

60 urte baino gehiago duten edo urte honetan 60 urte betetzen dituzten irakasle guztiek, (baldin eta 2010eko irailaren 1ean 65 urte ez badituzte), irakasletza zuzeneko jarduna asteen 13 ordutara murriztu ahal izango dute. Halaber, aplikatuko zaie 65 urte bete eta erretirorako eskubidea izateko beharrezko gabezia-aldia bete gabe dutenei edo bestelako premia-egoeraren batean daudenei, Batzorde Parekideak indarrean dagoen

hitzarmenean jasotakoaren arabera aztertutakoari jarraiki. Murrizketa hori borondatezkoa da, eta ez du ikastetxean igaro beharreko ordutegia gutxitzen. Liberatutako orduak Ordezkaritza Organo Gorenak onartutako Ikastetxeko Planean jasotako jardueretan igaro beharko dituzte.

Bestalde, 2009an 59 urte betetzen dituzten irakasleek, asteko jardunaldian 2 irakastordu murritu ditzakete gehienez. Denbora hori, hezkuntza administrazioak emandakoen arteko jarduera jakin batzuetan eman beharko dute, ikastetxean bertan.

2.3.5.- Gaixotasun kronikoa duten familiartekoei arreta emateko baimena duten irakasleak

2. mailara arteko senideei arreta emateko baimena duten irakasleek, indarrean dagoen akordio arautzailean ezarritakoari jarraiki, 50 ordu izango dituzte ikasturteko. Baimen hori erabili ahal izateko ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinazioan jardun behar dute, horrela, eskatzaileak ematen duen zerbitzuko beharrak estali ahal izango dira. Hori gauzatzeko orduan, hezkuntza- eta antolakuntza-koherentzia bermatu behar dira.

Pertsona eskatzailearen eta ikastetxeko zuzendaritzaren artean eztabaida sortzen bada baimen hori erabiltzeko modua adosterakoan, eta pertsona interesduna ez badator bat zuzendaritzaren erabakiarekin, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Hezkuntzako Lurralde Ordezkararen aurrean, eta horrek ebatziko du erreklamazio hori, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena aztertu ondoren.

2.3.6.- Hezkuntza Fisikoko irakasleak

Lehen Hezkuntzari dagokion ordutegia izango dute. Hezkuntza fisikoko irakaslearen eskola-ordutegia 23 ordura arte betetzeko, ikastetxeko antolakuntza eta Ikastetxearen Urteko Planan ezarritako lehentasunen arabera, Zuzendaritza-taldeak beste esparru edo jardueretako lanak esleituko dizkio.

Halaber, Lehen Hezkuntzako ikastetxeko irakaskuntza-premiak bete ondoren, Zuzendaritza-Taldeak hezkuntza fisikoko irakasleek ikastetxean igaro beharreko ordu-kopurua gutxitzeko aukera izango du, era horretan kirol-jarduera eta ekintzak antolatuta eta abian jartzeko, baldin eta ikastetxearen eskola kanpoko jardueren programan zehaztuta badaude.

2.3.7.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasleak

Irakasle horiek funtzioak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak 1998ko uztailaren 30ean emandako Aginduan daude zehaztuta (abuztuaren 31ko EHAA). Beren lanordua klaustroko beste edozein irakaslerena bezalakoa izango da: irakastorduetan (asteko 23 ordu) beren funtzioak bete beharko dituzte, ezingo dute bat bere ere bertan behera utzi, eta ikasleekin esku-hartzea izango da haien lehentasuna.

2.3.8.- Irakasle aholkulariak

Irakasle aholkulariek tutoreei eta irakasleei lagunduko diete, ikasle aniztasunari eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko. Halaber, Tutoretza Plana prestatzen eta garatzen lagunduko du, zikloko koordinatzailearekin batera, batez ere ikasleei orientabidea emateko jarduerak

Irakasle aholkularien funtzioan 1998ko uztailaren 30eko Aginduko 53. artikuluan jasotzen dira. Agindu horretan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzen dira (abuztuaren 31ko EHAA), eta irakasleen lana betebeharrak zehatzen testuinguruan kokatu behar da. Adibide gisa:

FUNTZIOAK

a) Tutoreari zailtasunak identifikatzen laguntzea, baita arrakasta emango dioten estrategiak zehazten laguntzea ere.

b) Irakasle tutoreei banakako curriculum-egokitzapenak egiteko laguntza eta aholkularitza ematea.

c) Gelan tutorearekin elkarlanean esku-hartzea, gelan bi profesional gisa jokatzuz, edo talde malguak egiteko momentuan, beste irakasle bat bezala jokatzuz.

d) Irakasle tutoreei etengabeko ebaluaketa egiten laguntzea, bai irakasleena nahiz hezkuntza testuinguruarena ere.

e) Hezkuntza-premia bereziak dituzte ikasleei banakako arreta ematea, bai inguru arruntak elkarbanatuz edo haietzako inguru zehatzak sortuz.

f) Tutoretza-lanen, aniztasunarekiko arretaren eta hezkuntza-premia berezien lanetan, berrikuntza- eta

LANAK

- Tutorearekin batera talde-gelako funtzionamendua oztokatzen duten aldagaiak, haien oztokoak eta hezkuntza-premiak aztertu eta identifikatzea.
- Irakasleekin gelako metodologia- eta antolaketa-egokitzapenak zehaztea, baita ikasleren batek behar badu, banakako arreta zehaztea ere.
- Zuzendaritza-Taldeari aniztasunari erantzuteko planifikazioa eta antolaketa moldatzen laguntzea.
- Zuzendaritza-Taldearekin batera, esku-hartzeak egiteko baliabideen esleipena planifikatu eta baloratzea.
- Irakasleekin eta gainontzeko profesionalekin Hezkuntza-Premia bereziak dituzten ikasleen banakako curriculum-egokitzapenak osatu, garatu eta jagotea.
- Irakasleen eskumenak hobetzen laguntzea, gela arrunteko ikasleen aniztasunari erantzun hobe emateko, eta ikasketan nahi parte-hartzean dauden oztokoak kentzeko ekintzak sustatzea.
- Irakasle tutoreei ikasleen banakako ebaluaketa interaktiboa egiten laguntzea, haren testuingurua kontuan hartuz, baita ikaslearen ahalmen eta premiak ere, era horretan prozesua eta programa berbideratzeko.
- Tutorearekin batera irakaskuntza eta ikaskuntza errazten duten elementuak identifikatzea (curriculum-egokitzapenak, gelako dinamika, lan-proposamen bereziak, banakako lana...).
- Zuzendaritza-Taldearen eta irakasleen ekintzak Berritzeguneko ekintzekin koordinatzea, batez ere dagokion aholkulariarekin eta Hezkuntza-Premia Berezikoko Aholkulariarekin.
- Gela arruntean ikasleei arreta zuzena ematea, eta salbuespen gisa, arreta gelatik kanpo ematea.
- Aniztasunari erantzuteko, ikastetxean, etapan ala zikloan esku-hartze globala egiteko programak sustatu eta dinamizatzea.

- prestakuntza-programak sustatu eta koordinatzea.
- Zuzendaritza-Taldearen onespenerekin, aniztasuna eta Hezkuntza-Premia Bereziak jorratzeko programetan parte-hartzea bultzatu, erraztu eta sustatzea.
 - Irakasleen arteko lankidetzaren sustatzea, eguneroko egoerak aztertzen laguntzea, era horretan gelan sortzen diren hezkuntza-premietara egokitzen jakiteko.

Irakasle-aholkularien jardunaldia hiru esku-hartze esparrutan banatzen da: ikastetxeko irakasleekin egindako esku-hartzetan aholkularitza ematea; gelako inguru arruntan lankidetzarako esku-hartzeak egitea, ikasleei hezkuntza-laguntza emateko eta hezkuntza-premia bereziak dituzte ikasleei banakako arreta eta laguntza ematea. Azken lan horretan 7 ordu arituko dira gehienez.

2.3.9.- “Ikasketa erkidegoen” irakasle koordinatzaileak

Aurreikusitako betebeharrak eta jarduketak, baita programa horretan parte hartzen duten ikasle, irakasle, senide eta gizarte eragileak proiektuetan jasoko dira. Horrez gain, Hezkuntza Berrikuntzarako Zuzendariak egindako deialdiaren Hautaketa Batzordeak hala proposatuta, proiektu horren koordinatzaileei asteko 3 eta 9 ordu arteko murrizketak egingo zaizkio ordutegian. Murrizketak ikastetxeko irakastorduetan kontabilizatuko dira.

2.3.10.- Prestakuntza eta Berrikuntza proiektutako irakasle aholkulariak

Hezkuntza Berrikuntzarako Zuzendaritzak onartutako prestakuntza- eta berrikuntza- proiektu ofizialetan parte hartzen duten ikastetxeetako koordinatzaileek behar dituzte orduak betetzea, batez ere programa hauek azpimarratuz:

- Eskola Agenda 21

Eskola Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten ikastetxeek, IIHIIk zehaztutako ordu-kopurua erabili beharko dute proiektu horretako lanetarako. Zenbat ordu aritu behar diren zehazteko, esperientzia horretan parte hartzen ari diren ikasle eta irakasle-kopurua hartu da kontuan. Ordu-kopurua 2 eta 6 artekoa izango da. Ordu horiek kreditu-orduen barne kontabilizatuko dira.

- Kalitatearen kudeaketarako sistemak

“*Kalitatea Hezkuntzan*” kalitatearen kudeaketarako sistemarako akreditazioa eskuratu duten eskolek, sistema hori koordinatzeko 3 eta 9 ordu artean erabili ditzakete. Ordu horiek kreditu-orduen barne kontabilizatuko dira.

2.3.11.- Hizkuntza normalkuntzarako arduradun teknikoa.

Hizkuntza Normalkuntzarako Programan parte hartzen dituen ikastetxeen kasuan, aukera emango da Hizkuntza Normalkuntzarako arduradun teknikoak 323/2003 Dekretuan bere betebeharrak betetzeko dedikazioa izan dezan, betiere kontuan hartuta ikastetxeak Programa horretan egokitzat jotzen duen ordu-kopurua erabili dezakeela, baldin eta aldeaz aurretik Ordezkaritza Organo Gorenak onartzen badu, eta irakastorduen barne esleitzen badira.

Halaber, Ikastetxean Hizkuntza Normalkuntzarako Batzordeko kide dire irakasleei Batzorde horren funtzionamendua bermatzeko denbora erraztuko zaie.

2.3.12.- Irakasle ibiltariak

Ibiltaritza-ikastetxeetako Ikasketa-Buruek edo Zuzendariak zehaztuko dute irakasle ibiltari bakoitzak ikastetxe bakoitzean zenbat denbora igaroko duen. Ildo horretan, irakasle ibiltari bakoitzak egin beharreko ibiltaritzaren arabera, eta ikastetxe bakoitzean ikasle eta taldeei eman beharreko arretaren arabera, eta irakatsi beharreko ikasgaien arabera, irakasle ibiltariak ikastetxe bakoitzean zenbat denbora igaro behar duen zehaztuko du ibiltaritza-ikastetxeak.

Ordutegiari dagokionez, irakasle ibiltariak esleitutako ikastetxeko ordutegia bete beharko dute.

2.3.13.- Erlajioko irakasleak

Ikastetxe guztietan nahitaez eskaini behar da Erlajio ikasgaia, eta familiek erabaki behar dute aukera hori hartuko duten edo ez. Erlajio-irakasleek irakasgai horri dagozkion orduak soilik emango dituzte.

Erlajioko irakaslea ikastetxearen klaustroko kidea da ondorio guztietarako eta gainontzeko irakasleen eskubide eta betebeharrak ditu, indarrean dagoen araudi eta legedietan ezarritako salbuespenak eta kontratuko egoera berezietatik ondorioztatzen direnak izan ezik.

2.3.14.- Ikasle iritsi berriei arreta emateko irakasleak

Kultura artekotasuna sustatzeko proiektuaren irakasle koordinatzaileak:

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, ikasle immigranteen ehuneko handia badute, irakasle erdiaren ordu-kreditu bat izango dute, dagokion deialdian ezarritakoari jarraiki.

Irakasle hauen berriazko funtzioak hauek izango dira:

- Ikastetxean, geletan eta erabiltzen diren materialetan eta baliabideetan eskola-elkartea osatzen duten kultura guztiak kontuan har daitezten lan egitea, eta protagonisten ekarpenei garrantzi berezia ematea.

- Integrazioa erraztuko duten estrategiei, prozedurei eta baliabideei buruzko irakaskuntza-esperientziak biltzea eta irakasleei jakinaraztea, etorkinei eta gutxiengo etnikoetako ikasleei hezkuntza-arreta ohiko gelan ematea bideratzeko. Halaber, irakasleekin lankidetzan aritzea, horrelako proiektuak martxan jartzeko.
- Harrera-plan bat diseinatzeko, martxan jartzeko, eta horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko laguntza ematea. Plan horren helburua izango da ikasle guztiak eta haien familiak hezkuntza-sisteman txertatzeko bide ematea.
- Zuzendaritza-taldearekin eta irakasleekin lankidetzan aritzea, ikastetxea gerturatzeko familiei, heldu berri diren ikasleen familiei bereziki, eskola-elkartean integra daitezen.
- Zuzendaritza-taldeari laguntzea ikastetxerako etengabeko prestakuntza-plan bat sortzen. Planak errealitate berria aintzat hartuko du; alegia, iritsi berri diren ikasleak daudela.
- Ikastetxeko proiektuen gainerako arduradunekin koordinatzeko guneak eta denborak ezartzea. Baliabideak bildu eta errentagarri bihurtu behar dira, lehenetsuneko jardunbideak ezarri, eta jarraipena lankidetzan egin.

Hizkuntza-Errefortzurako Programako irakasleak:

Hizkuntza-Errefortzurako irakasleen funtzioak hauek izango dira:

- Hizkuntza-Errefortzurako gelaren programazioa osatzea, ikasleen premietara egokituz.
- Tutorearekin batera, ikasle bakoitzarentzako banakako esku-hartzerako plana osatzea.
- Hizkuntza-Errefortzurako irakaskuntza antolatzea:
 - Irakasleak ezagutu eta taldetan banatzea.
 - Gela antolatzea.
 - Ikasmateriala aztertu, antolatu eta prestatzea.
 - Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.

Hizkuntza-Errefortzurako irakasleak, iritsi berri den ikaslearen tutorearekin batera, funtzio hauek bete beharko ditu:

- Iritsi berri den ikaslearen harrera eta integrazioa erraztea, haren gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan ikaslearen parte-hartzea sustatzea.
- Irakasleen ikasketa eta aurrerapenen ebaluaketan parte hartzea.
- Material eta edukiak egokitzea.

Eskola-erkidegoko kidea izanik, gainontzeko irakasleek bezala, Hizkuntza-Errefortzurako irakasleek funtzio hauek ere beteko dituzte:

- Hizkuntza-irakaskuntzako jarduerak planifikatzea.

- Hezkuntza-prozesuan, kultura arteko ikuspegia kontuan hartzeko jarduerak diseinatzea.

2.4.- ZUZENDARITZA-KARGUAK

2.4.1.- Zuzendaritza-Taldea

Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36 atalean xedatutakoaren arabera, Zuzendariak, Ikasketa-Buruak eta Idazkariak osatuko dute Zuzendaritza-taldea. Beren karguetako lanak egiteko eta irakaskuntza-lanak betetzeko adinako denbora librea eduki beharko dute. Halaber, Akordioaren arabera, Zuzendari Albokoa izendatu dezakete.

2.4.2.- Zuzendaritzako karguen ordutegia

Zuzendaritzako partaide batek behintzat ikastetxean egon behar du klase ordutan eta irakasleoa ikastetxean egon ohi den bitartean, eta hala agertu behar du zuzendaritzako kideen ordutegian.

Hiru Lurralde Historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariak aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko.

2.5.- IRAKASLEEN BERTARATZEA

2.5.1.- Jardunaldia betetzearen kontrola

Irakasleek ordutegi lektiboa nahiz ez-lektiboa bete behar dute. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagozkion kontrol-mekanismoak erabili ahaliko ditu.

Justifikatu gabeko edozein hutsegitea dagokion Ikuskaritza-Zonaldeari jakinaraziko zaio eta, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoaren arabera, hartzekoan deskontua sor dezake, izan daitekeen zigorpeko erantzukizunaren kalterik gabe.

Era berean, greba izanez gero, Ikastetxeko Zuzendaritzak grebaren datuen eta horren eraginaren berri emango dio Ikuskaritza-Zonaldeko Zuzendaritzari eta ikasleentzat ahalik eta arretarik onena antolatuko du, eskura dauzkan giza baliabideekin.

Halaber, irakasleren batek beharreko ordutegiaren sarrera-irteeretan huts eginez gero, bai ikastetxean igaro beharreko orduetan nahi irakastorduetan, Zuzendaritzak ordutegi hori betetzeko eskatu ahal izango dio irakasleari. Ez betetzei eutsiz gero, hileko bertaratze-partean islatzeaz gain, Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaizkio, neurri egokiak hartu ditzaten.

2.5.2.- Bertaratze-partiak

Ikastetxeetako Zuzendariak dagokien Ikuskaritza-Zonaldeko Zuzendaritzara bidali beharko dituzte, hilaren 5a baino lehen, aurreko hileko bertaratze-agiriak, eta oharren. Irakasleek greba egiten dutenean, aipatutako bertaratze idazkiaz gain greba egin duten langileen izenen zerrenda bidali beharko da grebaren biharamunean.

Ikastetxeek bertaratze-agiriak, Hezkuntza Ikuskaritzak emandako arauak jarraituz eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestaturiko aplikazio informatikoaren bitartez egin beharko dira. Aplikazio bera, grebaren kasuan, "hutsegitearen arrazoia" aintzat emateko erabiliko da eta baita ere jarraitu duten langileen izen zerrenda prestatzeko.

Hileroko bertaratze-parteei irakasleen eta ikastetxean lanean diharduten hezkuntzako langile ororen bertaratzea jaso behar dute. Bertaratze-parte hori betetzean alderdi hauek aintzat hartu behar dira:

- Langile horiek ikastetxe bitan edo gehiagotan badihardute, ikastetxe bakoitzaren zuzendariak bidaliko du dagokion bertaratze-partea
- Ezingo da bete gabe utzi "hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartea; hala utziz gero, hutsa arrazoirik gabekotzat hartuko da.
- Hutsegite guztiak aipatu behar dira, inongo salbuespenik gabe.
- "Hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartean "norberaren eginbeharrak" Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza irakasleari dagokion lizentzia eman badio bakarrik jarri ahal izango da.
- Eskolaz kanpoko jarduera gutziak Ordekaritza Organo Gorenak onartu beharko ditu. Irakastorduen barne eskolaz kanpoko jarduerengatik irakaslea ikastetxetik kanpo egotea ez da hutsegite bat, eta beraz, ez da hutsegite partean jaso behar.
- Bertaratze-agiriaren kopia bat jendaurrean jarriko da irakasleen gelan, hilabete bakoitzeko 5. eguna baino lehen. Beste kopia bat Ordezkaritza Organo Gorenari helaraziko zaio. Kopia hauetan, "Hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartea bete gabe geratuko da. Hutsa justifikatuta ala arrazoirik gabekoa den besterik ez da azalduko.
- Ordezkaritza Organo Gorenari jakinarazi beharko zaio zein prozedura ezartzen den ikastetxe bakoitzean, irakastorduetan irakasleren batek huts egiten badu, ikasleei arreta emateko.
- Eskolak betiko moduan ematearen aurkako edozein gorabehera berehala jakinarazi behar zaio telefonoz Ikuskaritzari, aurrerago bertaratze-agirian jasota geratuko bada ere.
- Ikastetxean ez egotea (edo lan ordutegia ez betetzea) Euskal Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoa ez den Irakaslego Publikoarentzako Akordioan agertzen diren bestelako arrazoiengatik gertatzen baldin bada, arrazoiak ikastetxeko Zuzendariaren aurrean egiaztatuko dira, zeinek, bidezkoa joz gero, hutsegitea justifikatzei ekingo dion.
- Irakasleen ardura da hutsegitearen frogagiriak Zuzendaritzan aurkeztea, horrek eskatu baino lehen. Hezkuntza Sailak antolatutako Euskara hobetzeko eta

euskalduntze-ikastaroak, liberaziodunak, justifikatzeko, Ikastetxeko zuzendariaren aurrean ala ikastaroen arduera duen erakundearen aurrera joan beharko da.

Hutsegitearen frogaririak ez dira bertaratze-agiriarekin batera bidaliko, haiek ikastetxean bertan artxibatuko dira eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura izango dira. Frogariak jatorrizkoak eta argiak izango dira eta eguna, ordua eta hutsegitearen arrazoia azaldu beharko dute.

2.6.- ZIKLO/ETAPA-TALDEAK

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan, haien ezaugarrien arabera, ziklo berean lan egiten duten irakasleen lantaldeak eratu daitezke, irakasle horien arteko koordinazioa eta pedagogia-lana hobetzeko.

Ziklo-Taldeek ziklo horietako irakasleen koordinazio didaktikoa egingo dute. Arduradun edo koordinatzaile baten zuzendaritzapean elkartuko dira. Talde horien helburua ziklo berean ikasgai ezberdinak irakasten dituzten arteko koordinazioa bermatzea da (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza). Talde horien lana eta bertan egindako lanak kide guztien ardura dira.

2.6.1.- Ziklo/Etapako koordinatzaileak

Haur Hezkuntzako irakasle-talde bakoitza eta Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitza lau irakasle baino gehiagoz osatuta bada, zikloko koordinatzaile bat edukiko du.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dituen ikastetxe batean, lau koordinatzaile egongo dira gehienez: bat Haur Hezkuntzarako, eta beste hiru, bakoitza Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako. Hala ere, 2 eta 5 urte arteko Haur Hezkuntzan hiru gela ala gehiago baldin badaude, ikastetxeak ziklo horretarako beste koordinatzaile bat eduki dezake.

Koordinatzaileak zuzendariak izendatuko ditu, beste zuzendaritza-kargurik ez duten zikloko irakasleen artean. Izendapen hori klaustroaren aktan eta EAJ en zehaztu beharko da.

Halaber, Koordinatzaile horiek beren funtzioak betetzean irakasleekin egindako bilera eta ekintzak dagozkien aktetan jaso beharko dira.

Zikloko koordinatzailea zikloaren arduraduna da. Zikloko koordinatzailearen funtzioak hauek izango dira:

- Zikloko irakasleen bilerak antolatu, deitu eta zuzentzea.
Etapako Curriculum Proiektuaren osaketa eta/edo berrikusketa dinamizatzea eta irakasleek gai horri buruz egindako proposamenak helaraztea.
- Ikastetxeko Pedagogia Koordinazio Batzordean parte hartzea.
- Zikloko ikasleen tutoretza-funtzioak koordinatzea.

- Zikloko irakaskuntza Curriculum Proiektuaren arabera koordinatzea.
- Jarduera osagarriak koordinatzea.
- Bere eskumenen barne, Ikasketa-Buruak agindutako beste lanak egitea, bereziki hezkuntza-errefortzua, curriculum egokitzea eta jarduera osagarriak antolatzea.

2.6.2.- Ziklo/Etapako taldearen bilera eta lanak

Ikastetxeko ordutegian, astean behin edo bi astean behin, zikloko taldeko kide guztiak biltzeko denbora aurreikusi beharko da. Ikasketa-Buruak kontuan hartu beharko du hori ordutegiak egiterakoan. Bilera hauetara etortzea derrigorrezkoa da zikloko taldeko kide guztientzat.

Ikastetxeko AJAn zehaztutakoaren arabera, Ziklo/Etapako taldeek ikastetxeko antolakuntzarako tresna eta proiektuak osatzen lagunduko dute.

Ziklo/Etapako taldeen lanak hauek izango dira:

- a) Ikastetxeko Ikasketa-Proiektuak zehaztutakoaren arabera, zikloan irakatsi beharreko irakasgaien programa didaktikoen osaketa koordinatzea.
- b) Ziklo bat osatzen duten ikasle-taldeentzat diseinatutako programazioen emaitzak aztertzea, eta beharrezkoa bada, programazioak aldatzea.
- c) Hezkuntza-jardueran, irakasleen irizpideak bateratzea.
- d) Zuzendaritza-Taldeari prestakuntza- edo berrikuntza-proiektuak proposatzea.
- e) Ikastetxeko proiektu eta planak osatzen laguntzea.
- f) Ikastetxeko organo eskudunek eskatutako lanak egitea.

2.7.- TUTORETZAK

2.7.1.- Tutoreen izendapena

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, talde didaktiko bakoitzeko tutore bat egon beharko da. Talde didaktikotzat jotzen da Hezkuntzako Lurraldeko Ordezkaritza bakoitzean urtero egindako plangintzat zehaztutako talde-gelak.

Tutore bakoitza Ikastetxeko zuzendariak izendatuko du, taldean irakasten duten irakasleen artean. Irakasle horien artean ziklo edo taldean irakastordu gehien dituen aukeratuko du zuzendariak.

2.7.2.- Tutoreen eginkizunak

Tutoreak ikasle guztiei, banan-banan, eta taldeari lagundu eta jarraipena egin behar die, nork bere proiektua eraiki dezan.

Ikasle bakoitzak bere taldeko ikasleak orientatu behar ditu, talde berean klaseak ematen dituzten irakasleekin koordinatuta; era berean, komunikazio erraza lortu behar du familiekin eta/edo legezko tutoreekin. Zehatz esanda, egiteko hauek bete behar ditu:

- Tutoretza Plana prestatzea eta garatzea, aholkulariaren eta zikloaren koordinatzailearen laguntzarekin.
- Ikasleen gaitasunak eta interesak ezagutzea, ikasketa-prozesuan orientabide eraginkorra eman erabaki pertsonalak eta ikasketa-esparruko erabakiak hartzen laguntzeko. Ikasleen talde-tutoretza egitea, tutoretza-programan zehaztutako orientazio-ekintzak barne hartuta, baita banakako tutoretza ere.
- Ikasleak beren taldean eta eskola-bizitzan integratzen laguntzea eta parte-hartze jokabideak sustatzea.
- Taldeko irakasleen hezkuntza-ekintza koordinatzea, irakasleen bilerak antolatu eta zuzentzea, baita taldeko ebaluaketa-bilerak ere.
- Ikasleen etengabeko ebaluaketa-prozesua koordinatzea, eta irakasleekin batera, ikasle bakoitzaren ebaluaketa eta sustapenerako erabakiak hartzea, gai horri buruz indarrean dagoen araudiak eta ikastetxeko hezkuntza-proiektuak xedatutakoaren arabera.
- Laguntza-irakasleekin batera, eta beharrezkoa bada, aholkulariarekin batera, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako curriculumaren egokitzapenak egin eta esku-hartzeak koordinatzea.
- Familiei eta/edo legezko tutoreei ikasleen ikas-prozesuei buruzko informazioa aldizka ematea eta haien kolaborazioa eskatzea.
- Etaparen amaieran (edo ezohizko egoeratan, esate baterako ikasleak zikloa edo etapa gainditzen ez duenean) banakako eskola-orientazio txostena egitea. Txosten horretan jarri behar da zenbateraino bereganatu duen ikasitakoa, batez ere ikaslearen hezkuntza-aurrerapenean eragin handiagoa duten alderdiak eta banakako arreta bermatzeko garrantzia handiena dutenak aintzat hartuta (175/2007 Dekretuaren 23.6. artikulua). Halaber, txosten horretan jasoko dira ikasleak etapan garatutako gaitasunak.
- Bere ardurapean dituen ikasleen ikasketa-dokumentazioa betetzea.
- Ikasleei eta haien familiei, hezkuntza-gaitasun orokorrak nola ikasten ari diren jakinaraztea.
- Ikastetxeko tutoretza orientabide eta ekintzarako Planean zehazten diren beste lanak.

2.7.3.- Ikasleen hutsegiteen kontrola

Irakasleek derrigorrez kontrolatu behar dituzte ikasleen hutsegiteak eta tutoreari jakinarazi. Tutoreen ardurapean dago ikasleen hutsegiteez arduratzea.

Familiei ikasleen hutsegiteen berri ematerakoan ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudiak dioenari jarraituko zaio. Araudian gai horri buruz ezer esaten ez bada, Ordezkaritza-Organoren Gorenak familiei hutsegiteen berri emateko epeak ezarriko ditu, hauen informazio zuzen eta zehatza emango zaiela ziurtatuz.

Familiengana hutsegite hauen berri lehenbailehen hel dadin erarik egokiena hartuko du Ikasketa-Buruak eta Zuzendariak behar bezalako aginduak emango dizkie tutoreei zein ikastetxeko Administraritzako langileei.

2.7.4.- Familiekin bilerak

Ikastetxeak familiekiko informazio-bilerak antolatu beharko ditu, eta bideak jarriko ditu ikasleen gurasoetan bertan parte har dezaten. Orobat, irakasleak, tutoreak eta tutoreak ez direnak ere hara azaltzeko ahaleginak egingo ditu ikastetxeak.

Familiiekiko bilera horien zehaztasunak (irekiak, orokorrak, taldeka, banaka edo nola egingo diren) eta beren antolaketa ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudiak dioenaren arabekoak izango dira. Araudiak gai horri buruz ezer ez badio, Ordezkaritza-Organoren Gorenak hartuko ditu hartu beharreko erabakiak. Era berean, Ordezkaritza-Organoren Gorenak azaroaren 1az aurretik bilera horien egutegia ere finkatu beharko du.

2.8.- PRAKTIKETAN IZANDAKO IRAKASLEEN TUTORETZA

Unibertsitateko tituludun berriek irakaskuntza arloko egitekoetan prestakuntza praktikoa izan dezaten, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lankidetzahitzarmen bana izenpetu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin, horrelako praktikak unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan errazteko konpromisoa hartuta. Hortaz, ikastetxeetako zuzendaritzei gomendatzen zaie ahal den neurrian erraztea tutoretzapeko praktika horiek.

Ikastetxeko zuzendariak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretza lanak egiten dituzten irakasleei eskola-orduen barruan kasuan kasuko unibertsitateak deitutako bileretara joan daitezten. Hutsegite horiek justifikatzeko deialdia eta zuzendariaren baimena aurkeztu beharko dira. Ezin izango da ordezkorik eskatu horiek betetzeko.

3.- IKASLEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK.

3.1.- ESKOLA-ORDUTEGIA

Ikastetxeko Ordezkaritza-Organorenari dagokio ikasleagoaren irakastordueak finkatzea, hezkuntza-etapa bakoitzaren berezko arauak errespetatuz. Edonola ere, ordutegi arrunta ez da astean 25 ordu baino gutxiagokoa izango eta astelehenetik ostiralera goiz eta arratsaldeko emanaldietan, Ikastetxeen Zuzendaritzako “eskola-egutegia prestatzeko oinarritzko arauen arabera” emango da.

OOGak finkatuko ditu ikastetxea irekita egongo den denbora eta irakastorduek kanpoko denboran zehar egingo diren jarduerak. Horren onespena, ikastetxearen arduraduna den Zuzendariak onartzeari eta irakasleen nahiz pertsonal ez-irakaslearen lan-eskubideak errespetatzeari baldintzaturik egongo da. Hartutako erabakiaren berri Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinaraziko zaio.

3.1.1.- Haur Hezkuntzako ikasleak

Haur Hezkuntzako ordutegia ikastetxeak berak zehaztuko du eta Ziklo horretako Ikasketa-Proiektuan jasoko da, Ordezkaritza Organorenari edo Eskola Kontseiluak onartu ondoren.

Haurrak etapan edo ikastetxean estreinako sartzan direnean, apurka-apurka hasiko dira, eta horretarako egokitze-aldi bat egingo da. Egokitze-aldi horren helburua da etxea eta eskolaren arteko zubiarena egitea eta haurrak apurka-apurka eskolara egokitzea. Egokitze-aldi hori da haurrak, eskolara hasten denean, egoera berrira egokitzeko behar duen denbora; eskolatze-aldi hori ez da berdina izango denentzat, eta ahaleginak egingo dira haurren premiei erantzuteko; edozein kasutan, familiarekin adostuko da eta ez da iraila baino gehiago luzatuko.

3.1.2.- Lehen Hezkuntzako ikasleak

175/2007 Dekretuak Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak xedatzen eta ezartzen du EAEn, eta 97/2010 Dekretuaren bidez aldakuntza batzuk egin dira. Horrenbestez, Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan jakintzagai bakoitzari gutxienezko ordu hauek eman behar zaizkio:

175/2007 Dekretua (2007-XI-13ko EHAA)

Orduak astero	Gutxieneko ordutegia				Kurtsoaren arabera erreferentzia-ordutegia			
	Zikloaren arabera			Guztira	1º-2º	3º-4º	5º	6º
JAKINTZAGAIAK	1º	2º	3º					
Natura, gizarte eta kultura-ingurunearen ezaguera	5	5	4	14	3	3	3	3
Arte-hezkuntza	3	3	3	9	2	1,5	1,5	1,5
Gorputz Hezkuntza	3	3	3	9	2	1,5	1,5	1,5
Gaztelania eta Literatura	8	7	7	22	4	4	4	3,5
Euskara eta Literatura	8	7	7	22	4	4	4	3,5
Atzerriko Hizkuntza	3	4	4	11	2	3	2,5	2,5
Matematika	5	6	6	17	3	3	3,5	3,5
Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza	--	--	1	1	--	--	--	1
Erlijioa	3	3	3	9	1,5	1,5	1,5	1,5
Tutoretza	2	2	2	6	1	1	1	1
Jolas-ordua	--	--	--	--	2,5	2,5	2,5	2,5
Ikastetxeak aukeratzekoa	10	10	10	30	--	--	--	--
GUZTIRA	50	50	50	150	25	25	25	25

97/2010 Dekretuak aldaketa batzuk eragin ditu jakintzagai batzuetan, batez ere Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagueran, eta Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzan. Aipatutako dekretuak ezarri dituen aldaketen arabera curriculum-materialak egokitu behar dituzte irakasleek.

Ordutegiak osatzean, ikasketa-planaren 175/2007 Dekretu berriak hizkuntzen ikasketari buruz xedatzen duena hartu beharko da kontuan:

- Ikastetxeek lehen zikloko ordutegia egokitu ahal izango dute, baldin eta ziklo horretako ordutegia betetzen bada, eta Dekretuko IV. Eranskinean zehaztutako helburuak betetzen badira.
- Hainbat hizkuntzako edukiak, esaterako egitura linguistikoak, hizkuntza bakar batean irakasteko aukera egongo da. Baina hizkuntza hori euskara ez bada, ikasleek Euskara eta Literatura ikasgaia edo ikasgaiak euskaraz jasoko dituela bermatu beharko da, aurreko taularen arabera, gutxieneko ordutegian gutxienez (175/2007 Dekretuko I. Eranskina). Jakintzagai komunak gaztelera irakasten ez badira, ikasleek Gaztelera eta Literatura ala ikasgaiak gaztelera irakasten ez badira, aurreko taularen arabera, gutxieneko ordutegian gutxienez (175/2007 Dekretuko I. Eranskina). Jakintzagai komunak atzerriko hizkuntzan irakasten ez badira, ikasleek Atzerriko Hizkuntza edo ikasgaiak Atzerriko Hizkuntzan jasoko dituela bermatu beharko da, aurreko taularen arabera, gutxieneko ordutegian gutxienez (175/2007 Dekretuko I. Eranskina).

Gorputz Heziketako jakintzagaiak, ikastetxea urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, EAEko Oinarrizko Hezkuntzarako curriculumak xedatzen duenak, zehaztutako gutxieneko ordutegia onartzen badute, astean gutxienez bi saio izango dituzte, 45 minutukoak gutxienez. 45 minutu horietan ez dira kontuan

hartuko higiene-ohiturak nahiz gela eta kirol-instalaziora joan-etorriak egiteko denbora.

Ordutegia derrigorrez bete beharko da, eta jakintzagai bakoitzeko eta ziklo bakoitzeko gutxieneko ordutegiak bete beharko dira. Beraz, hau hartu beharko da kontuan:

- 1.- Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzean, derrigorrezko jakintzagai guztiak irakatsi beharko dira.
- 2.- Jakintzagai guztiak ebaluatu beharko dira.
- 3.- Ikasketa-planean eleaniztasuna edo derrigorrezkoak ez diren jakintzagaiak irakasteko, ikastetxe bakoitzak aukeratzeko duen ordu-kopurua erabili beharko da. Irakaspen horiek guztiak ikastetxeko giza baliabideekin irakatsi beharko dira, eta ikasle bakoitzaren espedientean jasoko dira.

3.2.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA DIDAKTIKOAK

Ikastetxe batek aurrikusten badu ikastetxe horretatik kanpo jarduerak (bisitaldiak, txangoaldia, etab.) egitea ikasleen irakastorduen barruan, jarduera horiek jarduera osagarrien programan sartuta egon beharko dute, eta hala ez bada, Ordezkaritza-Organoren aurretik onetsi beharko ditu.

Eskolaz kanpoko ekintza ikastetxea kokaturik dagoen herritik kanpo egin behar denean, adin nagusikoak ez diren ikasleen guraso edo legezko tutoreen baimena idatzia behar da.

Ikastetxetik kanpo gauzatzen diren jarduerak osagarrietan, gutxienez bi irakasle egongo dira ikasleekin, bai eta hezkuntza-laguntzako langile espezialistak ere, hala dagokionean. Irakasleak laguntzeko gehienezko irakasle-kopurua honako hau izango da: irakasle bat 20na ikasleko edo, gutxiago badira 10etik gorako taldeko, beti ere, lehen aipatu den gutxienezko irakasle-kopurua zainduko delarik. Ahal den neurrian, jarduera horretan parte hartzen duen/duten taldearen edo taldeen ekipo didaktikoa osatzen duten pertsonen baliatuz hornitu beharko da irakasle laguntzailea.

Zuzendariak, edo berak izendatutako beste batek, ikasleek ikastorduetan egiten dituzten irteeren eta ikastetxean edo hemendik kanpora egindako eskolaz kanpoko ekintzen txostena egingo du, ikasle eta irakasleen zerrenda, haien edukina, iraupena, zein ordutan eta zein egunetan egin diren zehaztuz. Txosten horrek ikastetxean egon beharko du, Ordezkaritza-Organoren aurretik onetsi beharko du.

Eskolaz kanpoko irteerak, txangoak, udalekoak eta abar planifikatzean, kontuan hartu beharko dira ikasle guztien premiak, hpb dituztenenak barne. Irakasle guztiek dute jarduerak horietan parte hartzeko eskubidea; beraz, alde aurretik ikusi, eta egokienak aukeratu beharko dira, inor ez baztertzeko. Planifikazio hori egiterakoan, kontuan hartuko da hezkuntza-laguntzako langile espezialisten iritzia.

3.3.- HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK

Talde arruntetan integratuko dira, ikastetxeak zehaztutako baldintzetan, hezkuntza-premia berezien (aurrerantzean hpb) aholkularitzek txostena aurkeztu ondoren. Ikasle horiei ohiko taldean daudela laguntza ematea sustatuko da, eta horretarako behar diren laguntzak jarriko dira.

Talde hori ziklo osoan mantenduko da gutxienez, eta egin nahi diren jarduerak edo lortu nahi diren helburuen arabera, talde malguak osatu daitezke. Malgutasun hori, lehenik eta behin talde arruntetan mantendu behar da, talde osoko, talde txikiak eta banakako jarduerak sustatuz.

Halaber, batzuetan komenigarria izango da ziklo edo kurtso bereko ikasleen artean beste talde malgu-motak sortzea, egin nahi den jarduerak, ikasketa-zailtasunak edo behar diren errefortzuak kontuan hartuta: taldekide-kopurua gutxituz, horretarako beste irakasle batzuen laguntza edukiz edo bi talde talde ala gehiago talde handi bihurtuz. Talde malgu horiek errazago egiteko, osatu nahi diren kurtsoetan ordutegiek bat etorri behar dutela aurreikusi behar da.

Laguntza-irakasleek talde horien arretan parte hartu dezakete, baldin eta Ikastetxeko Planak formula hori ikasleen hezkuntza-premiak betetzeko egokia dela uste badu. Edonola ere, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateak eduki behar du lehenik. Ikasle horientzat beste laguntza-profesionalen zerbitzuak ere badaude, Berritzegunetan egindako hezkuntza-proposamenean parte hartzen baitute. Hori dela eta, Ikastetxeetako Zuzendaritzetan profesional horiek (logopedak, fisioterapeutek, okupazio-terapeutek, hezkuntza-laguntzan adituek) plangintzako jarduerak ezberdinetan (plana, ordutegia), koordinaketan (bilerak) eta haiei dagozkien beste gaietan parte hartzea sustatzen saiatu behar dira.

Nolanahi ere, 2004-06-17ko EHAAren argitaratu zen langile hauen hitzarmen kolektiboan ezarrita dagoena errespetatu beharko da eta zehazkiago 8. artikuluan (bilerak berritzegunetan), 17.artikuluan (lanaldia) eta hirugarren xedapen gehigarrian (Klaustorako deia) ezarrita dagoena.

3.3.1.- Curriculumaren norbanako egokitzapenak aurkezteko epeak

Egokitzapenak osatu eta bideratzeko epeak.

Curriculumaren egokitzapenak ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak (1998-7-13ko EHAA) eta hura garatzen duten Aginduek (1998-8-31ko EHAA) xedatzen dute. Araudi horren arabera, hauek dira egokitzapenak osatu eta bideratzeko epe eta muga-egunak:

Haur eta Lehen Hezkuntzan curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuak aurkezteko epeak.

- Ikastetxeko zuzendaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen esanahiduna *Berritzegunera* bidaltzeko aukera izango du, urriaren 30a arte.

- *Berritzeguneko* Zuzendaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuaren proposamena, hpbko aholkularitzek prestatutako txostenarekin batera, Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzara azaroaren 21a baino lehen bidaliko du.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuen zerrenda, hpbko aholkularitzek prestatutako aldeko txostenarekin eta Ikuskaritzaren Ontzat Emanarekin batera, Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzara bidaliko du abenduaren 15a baino lehen.
- Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzak curriculumaren egokitzapena onartua izan den ala ez ikastetxeei idatziz jakinaraziko die, urtarrilaren 9a baino lehen, ikastetxeak notifikazioa jasotzen duen egunetik aurrera 7 eguneko epean ikaslearen guraso edo legezko tutoreei informa diezaien.

3.3.2.- Aparteko adimena duten Lehen Hezkuntzako ikasleentzako curriculumaren hedapenezko egokitzapenak aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak curriculumaren hedapenezko egokitzapena *Berritzegunera* bidaltzeko aukera izango du, azaroaren 15a arte.
- *Berritzeguneko* Zuzendaritzak curriculumaren hedapenezko egokitzapenaren kopia, hpbko aholkularitzek prestatutako txostenarekin batera, Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzara abenduaren 1a baino lehen bidaliko du.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde-burutzara bidaliko du curriculumaren hedapenezko egokitzapenen zerrenda, hpbko aholkularitzen aldeko txostenarekin eta Ontzat Emanarekin batera, abenduaren 22a baino lehenago.
- Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde-burutzak idatziz jakinaraziko die ikastetxeei curriculum egokitzapena onartutzat jortzen den ala ez urtarrilaren 9a baino lehenago; hala, jakinarazpena jaso eta zazpi egun naturaleko epea bete baino lehen, ikastetxeak idatziz jakinaraziko die ikaslearen legezko arduradunei, eta Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde-burutzaren jakinarazpenaren kopia bat bidaliko die

3.3.3.- Lehen Hezkuntzan aldeztu aurretik eskolatzeko edo derrigorrezko hezkuntzaren epea gutxitzeko eskaerak aurkezteko epeak.

- Ikastetxearen Zuzendaritzak, zikloa hasi baino lehenago, apirilaren 30a baino lehen bidaliko du eskolatzeko murrizpenerako edo eskolatzeko aurreratzeko proposamena Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde-burutzara.
- Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde-burutzak txosten bana eskatuko die hpbko aholkularitzei eta Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzari; horiek maiatzaren 14a baino lehenago bidali beharko dizkiote.
- Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde-burutzak Pedagogia Berrikuntzarako Zuzendaritzara bidaliko du dokumentazio guztia, maiatzaren 18a baino lehenago.
- Pedagogia Berrikuntzarako Zuzendaritzak idatziz jakinaraziko die ikastetxeei eskolatzeko murrizpena edo aurrerapena onartutzat jotzen den

ala ez ekainaren 2a baino lehenago; hala, jakinarazpena jaso eta zazpi egun naturaleko epea bete baino lehen, ikastetxeak idatziz jakinaraziko die ikaslearen legezko arduradunei, eta Pedagogia Berrikuntzarako Lurraldeburutzaren jakinarazpenaren kopia bat bidaliko die.

3.3.4.- Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikaleei erantzuna emateko curriculumera sartzeko bitartekoak eskatzatzeko epeak.

Normalean zentroetan egoten ez diren baliabide espezifiko horien eskaera, bai curriculumera sartzeko curriculum-egokitzapenek eskatutakoena, bai banakako curriculum-egokitzapen esanguratsuek eskatutakoena, *Berritzegunearen* bitartez egingo da; horrek berri emango dio Hezkuntza Berrikuntzarako Lurraldeburutzari inguru horretako beharrei buruz. Ikasturteko une garrantzitsuak kontuan hartuta, honako data hauek ezartzen dira.

Ikasturte-hasieran hautematen diren egoera berriei dagokienez, orokorrean nahiko mugatuak:

- Zentroko zuzendaritzak urriaren 9a baino lehenago igorriko dio *Berritzeguneari* behar diren baliabideen proposamena h.b.b. dituzten ikasleen arabera. Pedagogi Aholkutegiko zuzendaritzak urriaren 16a bitarteko epea izango du zentroaren eskaeraren kopia eta hpbko aholkularitzen txostena Hezkuntza Berrikuntzarako Lurraldeburutzari igortzeko

20010-11 ikasturterako baliabideen aurreikuspenarako, honako epe hauek ezartzen dira curriculumera sartzeko bitartekoak eskatzeko:

Haur eta Lehen Hezkuntzan:

- Zentroko zuzendaritzak martxoaren 26a baino lehenago igorriko dio *Berritzeguneari* behar diren baliabideen proposamena h.b.b. dituzten ikasleen arabera. *Berritzeguneko* zuzendaritzak apirilaren 30a bitarteko epea izango du zentroaren eskaeraren kopia eta hpbko aholkularitzen txostena Hezkuntza Berrikuntzarako Lurraldeburutzari igortzeko.

3.4.- OSPITALEKO EDO ETXEKO ARRETA EDO ARRETA TERAPEUTIKO-HEZIGARRIA BEHAR DUTEN IKASLEAK

Abenduaren 20ko 226/2006 Dekretuaren bitartez, ospitaleko eta etxeke hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde-zentroak sortu diren. Horien helburua da medikuaren aginduz ospitale batean dagoelako, etxean suspertzen dagoelako edo programa terapeutiko-hezigarri batean dagoelako ikastetxera joaterik ez duten ikasleei hezkuntza-mailako laguntza ematea.

- **Ospitaleko laguntza** emango da Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ospitaletako hezkuntza-laguntzako geletan.

Ikasleak ospitaleko tratamendua behar duenean, ospitaleko gelako irakasleak emango dio arreta pedagogikoa, eta ikasleak ikastetxean duen tutorearekin koordinatuko da..

- **Etxeko languntza**, berriz, irakasleak emango du ikasleen etxeetan, baldin eta medikuaren aginduz ezin badira ikastetxera joan.

Egoera horretan dauden ikasleek eskolan ikasi eta gizarteratzeko, ikastetxeetako zuzendariak 1998ko uztailaren 30eko Aginduko 35. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko dute. Agindu horren bitartez, beharrezan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzen dira, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak jarri hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.

- **Eremu terapeutiko-hezigarriko laguntza** Osakidetzako haur eta gazteentzako osasun mentaleko zerbitzuarekin batera emango da, ezarritako lankidetzak-hitzarmenaren arabera.

Ikasle batek arazo psikopatologiko larriak izan eta laguntza intentsiborik behar badu, CAHDTEko programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko eskatu ahal izango da. Horretarako, hezkuntza-premia berezietako Berritzeguneetako aholkulariek eta Osakidetzako haur- eta gazte-psikiatriako ataleko oniritzia beharko da.

Gainera, programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko, honako hauek beharko dira:

- Aitak/amak/legezko ordezkariak berariaz emandako baimena.
- Balorazio-batzordearen akordioa.

Denboraldi jakin baterako onartuko da terapia-zentroan, batez beste 3 eta 6 hilabeterako; denbora hori gehienez ere 12 hilabetera arte luzatu ahal izango da, talde terapeutikoak egoki irizten badu. Edozelan ere, helburua da haurra edo nerabea berriro eskolatzea.

3.5.- BERANDU SARTZEN DIREN IKASLEEN ESKOLATZEA

Gure hezkuntza sisteman berandu sartzten diren ikasleen eskolatzea, hau da, matrikula egiteko epetik kanpo plaza bat eskatzen duten ikasleen eskolatzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako ikastetxe guztietara bidaliko dituen argibideen arabera egingo da.

3.6.- IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Gai honi dagokionez, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan –Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe ez unibertsitarioetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari

buruzkoa (abenduaren 16ko EHAA)– araututakoa aplikatuko da, bai eta indarrean dagoen araudiari jarraiki ikastexeko IIPak dekretu hori zehazteko araututakoa ere.

Bestaldetik, ikasleen arteko tratu txarrak gertatzen direnean Hezkuntza Ikuskaritzari ezagutzera eman behar zaio lehenbailehen. Kasu hauetarako, Hezkuntza Sailak emandako Jarduteko Gida erabiliko da.

3.7.- IKASLEEN ORDUTEGIA ETA IKASTETXEKO ORDUTEGI-ALDAKETAK.

Ikastetxe guztiek daukate Lurralde Ordezkaritzak onartutako ordutegi orokor bat. Ordutegi hori, eskola-egutegiari buruzko araudiaren arabera, etengabeko jardunean eman ahal izango da irailean eta ekainean, bai eta jardun etenean ere (goiz eta arratsalde), gutxienez 1,5 orduko tartearekin. Arratsaldeko saioa 1,5 ordukoa izango da gutxienez. Ikastetxeko ordutegi orokorra ezingo da aldatu ikasturtean zehar, Lurralde Ordezkaritzak behar den bezala baimendutako ohiz kanpoko arrazoiengatik ez bada.

ALDAKETAK: Ikastetxe batek hurrengo ikasturterako bere ordutegia aldatzeko beharra baldin badauka, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Gorago aipatutako eskola-egutegiari buruzko araudiak ezarritako baldintzak bete beharko ditu proposamenak.
- Ikastetxeko OOGeko gehiengo absolutuak edo eskola-kontseiluak onartu beharko du aldaketa-proposamena.
- Behin eskola-elkarte osoari galdetuta, hori osatzen duten kideen % 80ak baino gehiagok onartzea proposamena (gurasoek, irakasleek eta ikastetxeko gainerako langileek).
- Goragoko baldintzak betetzen badira, ikastetxeko zuzendaritzak Lurralde Ordezkaritzara tramitatzea aldaketa-eskaera, uneko urteko otsaila baino lehenago.
- Lurralde Ordezkaritzak, egoki irizten dituen txostenak bildu ondoren, aldaketa hori gauzatzeko baimena emango edo ukatuko du ikastetxeak matrikularako aurreinskripzioak egin baino lehenago; horrela, ikastetxeak, eskola-elkarteko kide guztiei jakinarazi ahal izango die hurrengo ikasturterako ordutegia aldatu egingo dela.

3.8.- IKASLEAK BERTARATZEA

Hezkuntza-eskubidea pertsonen oinarrizko eskubideetako bat da, eta horrela onartzen du indarrean dagoen antolamendu juridikoak. Eskubide hori derrigorrezko oinarrizko hezkuntzaren bitartez gauzatzen da, eta, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko Dekretuan ezartzen den bezala, klasera derrigorrez joan behar izatean zehazten da.

Eskubide hori erabiltzen laguntzeko, **ikasleen utsegiteen erregistro bat eduki beharko dute ikastetxeek**. Ikastetxeak erabakiko du, ikastetxeko bertako Antolakuntza

eta Jarduera Araudian ezarritakoari jarraiki, hutsegite horiek behar bezala justifikatu diren edo ez.

Justifikatu gabeko hutsegiteak absentismo-jokaera beten ondorio badira, ikasturte hasieran Hezkuntza Ikuskaritzak horretarako jakinaraziko dien prozedura jarraituko dute ikastetxeek.

Edonola ere, **hilabete bakoitzeko 5a baino lehenago, absentismoari eta ez eskolatzeari buruzko erregistroaren orduak** igorriko dizkio **ikastetxeko zuzendaritzak** Hezkuntza Ikuskaritzari (bai eta herriko udalari ere, hala badagokio).

3.9.- ERLIJIOA – HEZKUNTZA-JARDUERA BEREZIA

Erljio-alorra derrigorrez eskaini beharko dute zentroek, eta ikasleek nahi izanez gero aukeratu ahal izango dute.

Erljioa aukeratzeko orduan, ikastetxeek urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak ezartzen duena aplikatuko dute:

“Erljio-irakaskuntzak.

- 1.- Ikasturte-hasieran-erlijio-irakaskuntza jaso nahi duten ala ez adieraziko dute adinez nagusi diren ikasleek eta adingabekoen gurasoek edo tutoreek.
- 2.- Erljio-irakaskuntza jaso nahi dutenek, hauen artean aukeratu beharko dute:
 - Erljio Katolikoko irakaskuntza edo
 - beste erlijio-konfesio batzuetako irakaskuntza, baldin eta Estatuak nazioarteko akordioak edo lankidetzakoak izenpetuak baditu erlijio horiekin, eta, betiere, hitzarmen horietan adostutako baldintzetan”.

Gurasoen edo tutoreen idatzizko adierazpen hori ikaslearen administrazio-espeditentean jasoko da, ebaluazioaren adierazpenean edo ez esatean eragina izan ahal dezan. Erljioa, gainerako arloak bezala, ebaluatu egin beharko da.

Kontuan izan behar da gorago transkribatutako araua Eliza Katolikoaren erlijioaren eta Espainiako estatuarekin horri buruzko akordioak dituzten gainerako erlijioen irakaspenari buruz ari dela.

- a) Erljio Katolikoari buruzko klaseetarako:

Ikasturte amaieran, zuzendariak jakinaraziko diete Lurralde Hezkuntza Ordezkaritza, gotzaindegi edo batzorde arduradunari zein behar aurreikusten dituzten erlijio-irakasleei dagokienez, ikasturte berrirako hizkuntza-eskakizunekin batera; behar horiek irailean baieztatuko eta zehaztuko dira.
- b) Beste erlijio batzuei buruzko klaseetarako (Islamikoa, Ebanjelikoa eta Judua):



Orokorrean, ikasturte bakoitzaren amaieran, Hezkuntza Ordezkaritzari jakinaraziko zaio zenbat ikaslek eskatu duten hurrengo ikasturterako erlijioaren irakaspen hori jasotzea, hezkuntza-mailatan banakatuta.

2010-11 ikasturtearen hasieran konfirmatuko zaio zenbat ikaslek eskatu duten erlijio horiei buruzko irakaspenak jasotzea.

Ikastetxeko planean sartuko da erlijio-irakasleen izen-zerrenda, eta talde bakoitzari jarritako ordutegia zehaztuko da.

Beren gurasoek edo tutoreek eskatu ez dutelako, Erlijio eta Moral Katolikoari edo beste erlijio batzuei buruzko irakaspenak jasoko ez dituzten ikasleek, derrigorrez, antolatutako hezkuntza-arreta jasoko dute.

4.- IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO GAIAK

4.1.- EBALUAZIO-SAIOAK

Ebaluazio prozesuaren arauketa eta horretarako behar diren administrazio agiriena ondoko arauetan ezartzen dira: 175/2007 Dekretoa, urriaren 16koa (E.H.A.A. 2007-XI-13), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2008ko uztailaren 7ko agindua, Oinarrizko Hezkuntzako ikaslegoaren ebaluazioarena (E.H.A.A. 2008-VII-30) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1993ko maiatzaren 5ko agindua, Haur Hezkuntzako ebaluazioa arautzen duena (E.H.A.A. 1993-VI-1).

4.2.- KALIFIKAZIOEI BURUZKO ERREKLAMAZIOA EGITEKO ESKUBIDEA

Ikasle orok du bere errendimendu akademikoa objektiboki baloratua izateko eskubidea. Hori horrela izan dadin, beharrezkoa da ikasleak aurrez jakitea zein diren ebaluazio-irizpideak eta eskatuko dizkieten gutxieneko helburuak eta edukiak; horrela, ebaluazio positiboa jaso ahal izateko dagokion maila eta kurtsoko guztietan. Beraz:

- a) Esandako puntu horiek zehaztuko dira Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta Zikloko Taldeen agirietan.
- b) Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak bermatu egin beharko du ikasleek eta beren legezko ordezkariak dokumentazio hori eskura dezaketela.

Ikasleek eta, dagokionean, horien gurasoek edo legezko ordezkariak, beren errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak eskuratu ahal izango dituzte zuzenduta daudenean, eta dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, bai eta horien berraztertzea eskatu ere. Zuzenketa ez da kalifikazio hutsera mugatuko: egindako akatsak adierazi, eta gainditzeko jarduerak proposatuko dira.

Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak ezarriko du erreklamazio-prozedura, eta berraztertzea noiz eta zer baldintzatan egingo den zehaztuko du; kontuan hartuko du irakasleentzat lotesleak direla Curriculum Ofiziala, Ikastetxearen Curriculum Proiektua eta argitaratutako gelako programazioak eta kalifikazio-irizpideak.

Lehen Hezkuntzako ikasleek, ikasturtean zehar, edozein unetan proba, lan eta ariketa horiek ikusteko aukera izan dezaten, irakasleek ikastetxean eduki beharko dituzte indarrean dagoen araudiari jarraiki.



4.3.- EXENTZIOAK ETA BALIOZKOTZEAK

4.3.1.- Euskaratik salbuestea

Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren salbuespena martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuaren (EHAA 2010-04-20) artikuluko bakarraren hogeita bi atalean araututakoaren arabera izapidetuko da, 175/2007 Dekretuaren bigarren azken xedapena aldatzen duena. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari egin beharko zaio eskaera.

Eskaera hori ikasturtearen hasieran edo ikaslea matrikulatzen den unean egin beharko da, eta ikastetxeko zuzendariaren bitartez izapidetuko da; beraz, eskaera egitean, beharrezko dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

4.3.2.- Ikaskuntzako beste alor batzuk

Gainerako ikaskuntza-alorrei dagokienez, Hezkuntza Sailak ez du inolako exentziorik aurreikusten. 118/1998 Dekretuari jarraiki, ekainaren 23koari, Hezkuntza Bereziaren antolamenduari buruzkoari, hezkuntza-behar bereziak dituen ikasle bakoitzak une bakoitzean bere garapenerako behar duen hezkuntza jasoko du, eta horren integrazioa erraztuko da.

Ikasle guztiek, beren gaitasunen neurrian, ikaskuntza-alor guztien edukietara iristeko aukera izan behar dute; horretarako, beharrezkoa bada, ikaslea eskolatuta dagoen zikloko alor guztien curriculum-egokitzapenak egingo dira, nahiz eta Norbanako Curriculum Egokitzapena handia izan.

Lesioak, gaixotasunak eta abar direla eta, minusbaliotasun fisiko iragankorra duten ikasleak daudenean, horien osasun-ziurtagiriaren arabera kaltegarri izan daitezkeen ariketa fisikoak nola egokitu pentsatu beharko da.



5.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Urteroko izaerarekin, Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan ebaluazio diagnostikoa egiten jarraituko da. Aipatutako ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiei egingo zaie. Nolanahi ere, ebaluazio horrek ez du eragin akademikorik izango.

Diagnostiko azterketa hauek helburu bikoitza izango dute: ikasleen gaitasun-maila egiaztatu eta neurriak jartzea, maila hori hobetzeko. Horretarako, ebaluazioan lortutako datuak aztertu ostean, ikastetxe bakoitzak esku hartzeko planak prestatuko ditu, hobetzeko. Plan horiek baloratu egingo dira eta, era berean, horien jarraipena egingo du Ikuskaritza Zerbitzuak.

Diagnostiko prozesu honen arudia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko Aginduan dago, (EHAA 2008-12-09).

6.- LANGILE ESPEZIFIKOAK

6.1.- JANGELAKO ARDURADURA: ZUZENeko KUDEAKETAKO JANGELAK

Zuzeneko kudeaketako eskola-jangelen zerbitzuak, hau da, ikastetxeak berak ematen duenak, zenbait kudeaketa-organori, elkargokideak edo kide bakarrekoak direnei, eragiten die funtzionalki, hala nola, Ordezkaritza Organano Gorenari, zuzendaritza-taldeari, jangela-batzordeari, jangelako arduradunari...

2000ko martxoaren 20ko Aginduak, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jangelak arautzen dituenak (00-03-28ko EHAA) ezartzen duenaren arabera, eta zuzendaritza-taldearen delegazioz, honako hauek dira jangelako arduradunaren funtzioak:

- a) Otordu-zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea.
- b) Jangela-zerbitzura atxikitako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileen buru izatea, bai eta kanpoko langileen buru funtzioan ere, dagokionean, enpresa hornitzaileen eta beren langileen arteko lan-harremanak edonolakoak direla ere.
- c) Jangela erabiltzen dutenen kobrantzaren jarraipena egitea, bai bere ikastetxe koena, bai eta zerbitzu hori erabiltzen duten beste batzuen ere. Jangela ikastetxe batek baino gehiagok erabiltzen badu, kudeaketa ekonomikoa bakarra izango da, jangela dagoen zentroko kudeaketa ekonomiko orokorrean integratua.
- d) Jangelako funtsen zuzeneko kontrol jarraitua egitea.
- e) Ikuskapen-lanak egitea. Beste lan batzuen artean, ikuskapena honako hau dela ulertuko da: zerbitzua ematen den artean ikastetxeko instalakuntzetan egotea, eta diziplinaren eta jangelako funtzionamendu egokiaren ardura hartzea.
- f) Ikasleek parte har dezaten, programak proposatzea OOGri.
- g) Aldizka, tresneriaren inbentarioa egitea eta eguneratzea, eta hori birjartzea.
- h) Kontratututako enpresaren zerbitzuaren ezaugarriei eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea OOGri, eta instalakuntzetarako lanak eta hobekuntzak proposatzea.
- i) Elikagaien eta lokalen higiena kontrolatzea.
- j) Jangela zaintzea erabiltzen den bitartean, birkokatutako langileak direnean (197/98 Dekretua).
- k) Zerbitzua emateko beharrezko den beste edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkionak ere.

Jangelako kudeaketa- eta adiministrazio-lanak bi motatako langileek egin ahal izango dituzte, eta horien ordutegia ikastetxeko zentroak onartuko du:

- **Birkokatutako langileen poltsatik datozen jangela-arduradunak**, 197/98 Dekretuan (98-09-08ko EHAA) aurreikusitako neurriak aplikatuz:

Salbuetsita ez dauden irakasleek euskara-liberazioa eskatzen badute, irakasle horien lan-baldintzen barruan jasoko da ikastetxean astean 20 ordu ematea, hain zuzen, lau ordu eguneko, eta egiaztatzea –gutxienez- 450 ordu euskara eskola, 2010eko uztailetik 2011ko irailera bitarteko aldirian.

- **Ikastetxeko bertako jangela-arduraduna:**

Arduradunak jangela-zerbitzuan emandako lanaldiaren portzentajea honakoa izango da:

Mahaikideak	Jangelan emandako asteko lanaldia	Eguneroko presentziatzko orduak
30 arte	1/3	1
31tik 250era	1/2	1,5
250 baino gehiago	1	2

Gorago esandako funtzioez gain, jangela-arduraduna jangelako instalakuntzetan egon beharko da, bai eta otordu-aurreko eta -ondorengo atsedenetan ere, aurreko koadroan esandako orduetan zehar.

Ikastetxe batek baino gehiagok erabiltzen dituzten janglei dagokienez (jangela beste maila bateko ikastetxe bateko mahaikideekin batera erabiltzen dutenak, jangela beren ikastetxean dagoenean), jangelarik ez daukan zentroko irakasleek asteko 10 orduko ordu-murrizketa izango dute, aipatutako 2000ko martxoaren 22ko Aginduko 15. artikuluko e), f) eta j) puntuetan ezarritako funtzioak bete ahal izateko. Funtzio horiez gainera, honako hauek ere beteko dituzte:

- Zerbitzua ematen den artean jangelako instalakuntzetan **egotea**, eta diziplinaren eta jangelako funtzionamendu egokiaren ardura hartzea.
- **Ikuskapena**, otorduak irauten duen artean, eta aurretik eta ondoren.
- Bere ikastetxeko mahaikideei jangela daukan ikastetxera **laguntzea** eta horiekin itzultzea.

6.2.- ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAREN ARDURADUNA

Aministrazio Kudeaketaren Arduradunak (AKA) ez du idazkaria ordezkatzuko eta ez ditu horren lanak egingo. Zuzendariari lagunduko dio kudeaketa ekonomiko-finantzarioarekin lotutako gai jakin batzuetan, eta funtzio osagarri horrek baldintzatuko du bere jardura.

Administrazio-kudeaketaren arduraduna ez da EEPLan -1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (otsailaren 25eko EHAA)- deskribatutako administrazioarekin parekagarria. Izan ere, lehenengo horren menpekotasuna ez dago erakunde eskumendunen jarraibideei lotuta –aipatutako legeko 64. artikulua dioen bezala-, eta bere funtzioak ez dira bertan ezartzen direnen berdinak, nahiz eta, nola ez, ikastetxeko Kudeaketa Proiektuan eta Urteko Planean ezartzen diren kudeaketa ekonomiko-administratiboarekin lotuta dauden.

Era berean, horren funtzio subsidiarioa haintzat hartzen denez, administrazioaren funtzioetara asimilagarri ez denez, eta idazkariarekin batera existitzen denez, ez dago zuzendaritza-taldean sartzeko aukerarik; izan ere, aipatutako legearen 36. artikuluan aurreikusten den hipotesi bat da hori.

Funtzioak

AKA irakaslearen irudiak zentzua hartzen du zuzendariaren lanetatik sortutako arduretan laguntzeari dagokionez, EEPLren 34. artikuluan deskribatzen den bezala, eta, bereziki, honakoekin lotutakoei dagokionez:

- Ikastetxeko urteko kudeaketa-programaren arabera, gastuak baimentzea, eta ordainketak egiteko aginduak ematea.
- Behar diren lan-, zerbitzu- eta hornikuntza-kontratazioak egitea.

Funtzio horiek administrazioaren eta kudeaketa ekonomikoaren alorreko lanak dakartzate; edonola ere, zuzendariak ikuskatuta eta haren ardurapean gauzatuko dira lan horiek, eta hark eman diezaieke izaera didaktikoa duten beste zereginen ardura.

Horregatik, AKAk zuzendaritza-lanetarako eman beharreko laguntzarako prozesuak hiru eremutan banatzen dira:

I) Administrazioa

- Hezkuntza-elkarteko sektoreei eta hornitzaileei arreta ematea eta informatzea.
- Telefono-deiei, faxei, posta elektronikoei eta abarri arreta ematea, informazioa bideratuz.
- Posta jasotzea, sailkatzea, erregistratzea eta banatzea.
- Ikastetxeko inbentarioa kontrolatzea.
- Kopiagintza-materiala erabiltzea eta zaintzea.
- Idatziak, gutunak, ziurtagiriak, jakinarazpenak, zerrendak eta abar makinaz idaztea.
- Espediente akademikoak eta bestelako administrazio-dokumentuak irekitzea eta eguneratzea.
- Datuak bideratzea dagokion administrazioa.
- Ordezkoak eskatzea, irakasleak edo irakasle ez direnak.
- Informatika-aplikazioak erabiltzea ikastetxearen kudeaketa-alorretan.
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaltzea altak eta bajak, bai eta langile-gabeziaren baieztapena ere.

II) Ekonomikoa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Autonomia Ekonomikorako eta Finantzariako gidaliburuaren bitartez, sortutako autonomia finantzariozko kudeaketa-ereduari lotuta daude eremu honetako lanak.

Urteko Kudeaketa Programa da erreferentzia nagusia; izan ere, horren zehaztapenen artean egongo da ikastetxeko aurrekontua, funtzionamendu-gastuak zehaztuko dituen, bai eta ekipamendu- eta inbertsio-gastuak ere, eta gastu horiei zer baliabiderekin aurre egingo zaien ere zehaztuko duena.

Aurrekontu operatiboak jasoko ditu, aurreikuspen izaeraz, ikastetxeari esleitutako diru-sarrerak, bai eta gastuak ere, Kontabilitate Publikoko Plan orokorrari jarraiki; horrek, urte naturalean zehar, ekintzen “timing” bat zehazten du, eta honako lan hauek egitea eskatzen du:

- Aurrekontu operatiboa egitea
 - Ikastetxeko beharren lehentasun-maila zehaztea.
 - Diru-sarrerak sailkatzea.
 - Gastuak sailkatzea.
- Aurrekontuak aldatzea, honakoen arabera
 - Gastuen eta/edo diru-sarreraren hazkundea, positiboa edo negatiboa.
 - Kredituak berriz banatzea.
- Aurrekontua gauzatzea
 - Materiala erosteko kontratazioak eta proposamenak prestatzea.
 - Ordainketak egitea.
 - Erregistro-liburuetan idaztea.
 - Gauzatzearen egoeraren laburpena egitea.
- Aurrekontuari buruzko informazioa ematea
 - Dokumentazioa betetzea aldizka:
 - Ekitaldiko aurrekontu operatiboa.
 - Gastu-gauzatzearen egoeraren laburpena.
 - Diruzaintza aztertzea

III) Didaktikoa

Ikastetxean sor daitezken irakaskuntza-beharrei erantzuna ematea (ohizko irakaskuntzari laguntza ematea, irakasleen ordezkapenak, hezkuntza-indartzeko beharrak, erreperazioak...) gainerako irakasleen baldintza berdinetan, eta aipatutako jarduera ekonomiko-administratiboen kaltetan izan gabe.

AKAren menpenkotasuna

AKA zuzendariaren menpekota da denerako.

Zuzendaria, beste funtzio batzuen artean, ikastetxera atxikitako langile guztien buru dela kontuan hartzen badugu, pentsatzekoa da, orokorrean, AKA zuzendariaren subordinatu izango dela hierarkikoki.

Era berean, zuzendaritza-postutik sortutako administrazio-lanetan laguntzea denez bere funtzioa, organikoki edo funtzionalki, zuzendariaren menpe egongo dira bere jarduerak; azkenean, zuzendariak hartuko ditu bere gain kudeaketa-ardurak.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, zuzendariak jakinaraziko dio irakasle-klaustroari zein pertsona izandatu duen bere zuzendaritza-funtzioak osatzeko.

Dedikazioa eta izendatzea

AKAren dedikazioa lanpostuen zerrenda egiteko zehaztutako irizpideen araberrakoa da, eta bi erregimen zehazten dira:

- dedikazio partziala (lanaldi-erida), 13, 14 eta 15 unitateko ikastetxeetan.
- dedikazio osoa (lanaldi osoa), 16 unitate edo gehiagoko ikastetxeetan.

Zuzendariak izendatuko du AKA, boluntarioki postua eskatu duten behin betiko, aldi-baterako edo bitarteko irakasleen artean aukeratuz.

6.3.- PROIEKTUEN ARDURADUN DIREN IRAKASLEAK JARDUERA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKOEN PROGRAMAREN BARRUAN (eskola-liburutegiak; komunikazioa; prentsa eta irratia; plastika; ingurumena eta eskola-kirola).

Aukeratutako programen arduradunak dituzten ikastetxeei dagokienez, horien funtzioak zehaztuta dituzte sailburuordetzaren 1998ko maiatzaren 29ko Ebazpenean, Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programarako daildia egin zuenean.

Ikastetxeko zuzendaritzak onartuko du irakasle horien ordutegia. Beren jarduerak gauzatzeko ikastetxeak onartutako sistema orokorra hartuko du kontuan ordutegiei eta egutegiari dagokienez, ikastetxeko egutegiak etengabeko jardunerako eta jardun etenarako zehaztutako denbora-tarteak eta egunak errespetatuz.

a) Ikastetxeko eskola-ordutegia.

Jarduera osagarriak programatzerakoan eta gauzatzerakoan laguntzeak, eta eskola-lanaldian arduraduna ikastetxean egoteak aukera emango dute proiektua Ikastetxeko Urteko Planeko Irakaskuntza Jarduretako Programaren barruan sartzeko. Horrela, erreferentzia-talde bat emango dio programari, ikastetxeko prestakuntza-programetan parte hartuko du, eta

ikastetxeko irakasle guztien eta hezkuntza-laguntzarako espezialisten arteko koordinazio mantenduko du, beharrezko dena. Era berean, ordutegi horren barruan, proiektuan dituen ardurek sorrarazitako prestakuntza-beharrei erantzuna emango die.

Lanaren zati horrek asteko lanaldiaren herena beteko du, hau da, 10 ordu.

b) Ikastetxeko eskolaz kanpoko ordutegia.

Irakasleek praktikan jarri beharko dituzte programak diseinatutako eskolaz kanpoko jarduerak, eta irakasle arduradunak esku hartuko du borondatez parte hartzen duten ikasleekin.

Lanaren zati horrek asteko lanaldiaren bi heren beteko ditu, hau da, 20 ordu.

Ordu-banaketa alda daiteke proiektuen ezaugarri konkretuen eta ikastetxeko egoeraren arabera, baina gutxienezko minimo hauek mantendu egin beharko dira:

- Irakas-orduak astean 10 orduz.
- Eskolaz kanpoko ordutegia, astean 20 orduz. Horien artean, gutxienez 2 ordu emango dira ikasleen arratsaldeko irakas-orduak amaitutakoan.

c) Beste ordutegi batzuk

Lanaldi osoz lan egiten ez duten irakasleei dagokienez, ikastetxeak ezarriko du horien lanaldia eta ordu-banaketa.



7.- HEZKUNTZAKO LAN KONTRATUKO LANGILEAK ETA HEZITZAILEAK

Ikastetxe batzuetan, beste laguntzaile profesional batzuen zerbitzu espezifikoko jasotzen dituzte hpb dituzten ikasle batzuek; profesional horiek *Berritzeguneetatik* berentzat planifikatutako hezkuntza-proposamenari laguntzen diote.

Lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileak beren hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera zuzenduko dira, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren 2004ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bitartez argitaratu eta erregistratutakoaren arabera (EHAA, 2004ko ekainaren 17koa). Gainera, batzorde paritarioa eratu da, hitzarmen hori aztertu eta zaintzeko, eta trenza juridico hori et ahorraren earanskinak osatzen dituzten gai guztiak garatu eta jarraitzeko. Langile horien funtzionamenduari buruzko orienbabide zehatzak ere emango dira, horretarako prestatutako jarraibide edo zirkularren bitartez.

Zuzendaritzek erraztu egin behar dute docente y hezkuntza-langile horiek (logopedak, fisioterapeutak, okupazio-terapeutek, hezkuntza-laguntzarako espezialistak) parte hartzea horiei dagozkien alderdien plangintzan (plana, ordutegia...), koodinazioan (bilerak) eta jarraipenean.

7.1. ZEINU-MINTZAIRAREN INTERPRETEA

Hezkuntza-sistemako zeinu-mintzairaren interpretea gelako komunikaziorako langile bat da, zeinu-mintzaira eta ahozko mintzaira dakizkiena. Ohizko irakasleak hezkuntza-jardueran dioena itzuliko die beren ikasleei, eta hizkuntza nagusitzat zeinu-mintzaira duten ikasleei irisgarri egingo die hori.

Funtzioak:

- Ikasle gorrei curriculumera iristen laguntzea, irakasleen eta zeinu-mintzaira dakiten ikasleen arteko komunikazio-zubi izanez Lehen Hezkuntzako mailetan.
- Irakasleen eta ikasleen arteko komunikazioan bitartekotza lanak egitea, baina horien arteko harremanean eragin gabe, uneoro mantenduz jarrera inpartziala, eta babesa, aholkua edo kontrola dakarten jokaerak ekidinez.
- Gelako irakasleekin koordinatzea, ikasgai- edo jarduera-zerrenda aurretik eduki ahal izateko, eta hori linguistikoki egokitzeko.
- Gelako irakasle-taldeari aholku eta laguntza ematea, eskolatutako ikasle gorraren ahalmenetara egokitzeko gela.
- Klaustroari eta ikasleei jakinaraztea ikastetxean eta gelan egongo dela, bere funtzioak gauzatzeko behar dituen ingurune-baldintzen

normalizazioa errazteko.

- Bere jardueraren konfidentzialtasuna errespetatzea.

7.2.- LANALDI-BETETZEAREN KONTROLA

Hezkuntzako lan kontratuko langileak behartuta daude ikastetxean betetzen dituzten funtzioen araberrako ordutegia errespetatzera.

Horretarako, 1.480 orduko urteko gehienezko lanaldia ezartzen da; gehienezko urteko lanaldi hori ikastetxe bakoitzeko egutegira egokituko da edonola ere.

Hezkuntza-laguntzarako espezialistek hilabetean 10 ordu izango dituzte guztira ikastetxean koordinazio-lanak egiteko eta materiala prestatzeko.

NCEaren arabera (Hezkuntza-laguntzarako espezialistak) h.b.b. dituzten ikasleen eskola-jangelako zainketa- eta arreta-zerbitzuen ardura duten irakasleei dagokienez, zerbitzuak hala eskatzen duelako eta lan-antolakuntzarekin bat etorritz, bazkaltzeko atsedena eta ikasleen bazkaria zaintzea eta laguntzea une berean gertatzen badira, bazkarian emandako denbora lan-denbora gisa hartuko da. Horrelakoetan, langileari 45 minutu bermatuko zaizkio bere bazkarirako, eta ordu bete gisa kontatuko dira.

Zerbitzu-beharrek hala eskatzen dutelako, hezkuntza-laguntzarako espezialistek gaua etxetik kanpo pasatzea dakarten jardueretan laguntzen badiote ikasleari, ordu-metatzeari dagokionez, 8 orduko ohiko lanaldia 1,5 egun gisa zenbatuko da. Jaiegun batean gertatzen bada, 2 egun gisa zenbatuko da. Languntze horiek egiten dituzten aldi baterako edo bitarteko langileei dagokienez, irizpide bera aplikatuko da.

Urtero, ikasturtea hasi eta hilabeteke epean, zebitzu-emateko egutegia eta ordutegia emango zaio langileari. Egutegi hori ikasturte osorako izango da, baina, ikasturtean zehar sor daitezkeen zerbitzu-beharrak direla eta, aldaketak egon daitezke -betiere, ohiz kanpokoak izango dira eta behar bezala emango da horien berri-; azken buruan, batzorde parekideak onartu beharko ditu.

Hezkuntza-laguntzarako espezialisten kategoria duten langileei dagokienez, ikastetxe batean baino gehiagotan lan egiten badute –inola ere ez bi baino gehiagotan- eta bi ikastetxe horietako egutegiak desberdinak badira, bere lanaldiaren zatirik handiena pasatzen duen ikastetxekoa hartuko du kontuan.

Beren zerbitzuak ematen dituzten ikastetxeko zuzendaritzak orokorki dei egingo die hezkuntza-langileei ikastetxeko irakasle-taldeko klaustrora, eta beren funtzioak betetzearekin lotutako gaiak lantzen direnean, horien presentzia bermatzen saiatuko da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ordutegi eta egutegi hori kontrolatzeko mekanismo egokiak zein diren erabaki ahal izango du.

Ikastetxeko zuzendariak ordutegiaren arrazoitu gabeko ez betetze orori buruz berri emango dio dagokion ikuskaritza-zonari; horrek hartzekoen murrizketa eragin



dezake, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoari jarraiki, egon daitekeen diziiplina-erantzukizunean eraginik izan gabe.

Era berean, greba baldin badago, Ikastetxeko Zuzendaritzak berri emango dio ikuskaritza-zonari horren eraginari buruz, eta dauden giza baliabideak erabiliz, ahal den zerbitzu hobereana emango die ikasleei.

Halaber, irakasleren batek sarrera-irteeren ordutegia ez badu betetzen, bai irakastorduei bai ikastetxean igaro beharreko orduei erreparatuta, zuzendariak aginduko dio ordutegia zintzo betetzea. Hala ere ez badu ordutegia betetzen, Lurralde Ordezkaritzako Pertsonal Unitateari jakinaraziko dio, baita Hezkuntza Ikuskaritzari ere, behar diren neurriak har ditzaten.

8.- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek eskatutako **prestakuntza-proiektuak** eratzeko, dagokion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen Aginduan ezarritakoa hartuko da kontuan; Agindu horrek unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako dirulaguntzetarako deialdia egiten du, prestakuntza-proiektuak eta hezkuntzaren berrikuntzarako proiektuak egin ditzatzen 2010-2011 ikasturtean zehar.

Proiektuan parte hartzeagatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren diru-laguntzarik eta ziurtagiririk nahi ez duten ikastetxeentzat, izaera orientatzailea izango du Agindu horrek. Edonola ere, ikastetxeko Urteko Planean adieraziko dira prestakuntza-helburuak.

Beraz, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak antolatuko ditu prestakuntza-jarduerak, proiektu horretan aurreikusitako helburuak betetzeko onartutako proiektuarekin bat etorriz, eta proiektuan zehaztutako moduan edo, halakorik ez bada, ikastetxeko zuzendaritzak erabakitako moduan; izan ere, horretarako autonomia dauka, bere eskumenen parte baita hori. Jarduera hori betetzen den edo ez kontrolatu beharko da, irakasle bakoitzaren ordutegiko beste edozein jarduera bezala.

Eskola 2.0 proiekturako prestakuntza ahalik eta baldintza hoberenetan emateko eta ikastetxeei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko, zuzendaritzei arren eskatzen zaie ordutegiak antolatzean kontuan hartzea 5. eta 6. mailako irakasleek (tutoreek, ingeleseko irakasleek eta pedagogia terapeutikoko irakasleek) bi ordu beharko dituztela prestakuntzarako. Prestakuntza hori IKT dinamizatzaileak emango die ikastetxean bertan, ahal izanez gero; eta bestela, berriz, dagokien Berritzegunera joan beharko dute. Ikastetxe bakoitzak zonako Berritzegunera jo behar du prestakuntza hori antolatzeko.

Ikastetxeak erabakitzen badu dinamizatzaileak emango duela prestakuntza, kontuan hartu behar du dinamizatzaile horrek beste hiru ordu libre beharko dituela, zonako Berritzegunera joan eta premiazko prestakuntza jasotzeko.

9- TEKNOLOGIA BERRIAK – IKT

Informazio eta komunikazio azpiegitura mantentzea eta garatzea eta Teknologia berriak (IKT) sustatzea da helburua. Ikastetxeko zuzendariak, helburu hori lortzeko, arlo horretako arduradun bat edo gehiago izendatuko du, ikastetxeko irakasleen gaitasunaren eta orduen aldetiko erabilgarritasunaren arabera. Dagozkien eginkizunak burutzeko, hezkuntza-kudeaketarako ikastetxeari emandako ordu-murrizketaren zati bat esleitu ahal izango die zuzendariak.

Arduradun horiek, Zuzendaritzarekin koordinatuta, honako zeregin hauek izango dituzte:

- Ikastetxeetako informatika eta multimedia sistemekin jarduteko esparrua.
 - Ikastetxeko informatika eta multimedia instalazioen eta ekipamenduaren jarduera egokia ikuskatu eta kontrolatzea.
 - Mantenimendu enpresekin, ekipamendua hornitzen duten enpresekin eta komunikazio enpresekin baita Hezkuntza Saileko Informazio Sistemen Zuzendaritzarekin (horren menpe egongo da eragin teknikoetarako) ere solaskide lanak betetzea.

Oharra: Aurki ikasturtean zehar ezarriko den arreta teknikorako kanpo-sistema berriak eginkizun horiek mailaka aldatzea eskatuko du.

- Ikastetxeetako IKTen dinamizatzaile moduan jarduteko esparrua:
 - Ikasteetxean IKTen eguneratze pedagogikoa sustatzea eta horien bidez hezkuntza-komunitate guztia parte hartzera bultzatea.
 - IKTi buruzko ikastetxearen urteko planaren garapena koordinatu eta dinamizatzea.
 - Ikastetxeko Zuzendaritzari baliabide informatiko eta ikusentzunezkoak irakaskuntzan erabiltzeko egin beharreko lanaren urteko programazioa proposatzea, ikastetxearen urteko planean sar dadin, eta etapen eta ikasgaien araberrako txostenen eta ikastetxearen txosten orokorraren prestaketa koordinatzea, ikastetxearen urteko planaren abaluzioan sar daitezen.
 - Baliabide informatikoen erabilera koordinatzeko eta IKT programa garatzen duten programazioak finkatzeko etapen eta ikasgaien ekipoek egiten dituzten bileretan parte hartzea.



- IKTak erabiltzeko eta curriculumean sartzeko lanetan irakasleen parte hartzea sustatzea. Irakasleei aholku ematea, ekipoetan instalatuta dauden hezkuntza programei buruz, eta jarduera eta maila bakoitzarentzat egokiena denaren berri ematea.
- IKTak irakaskuntzan arrakastaz erabiltzeko, praktika onak argitaratzea eta esperientziak zabaltzea ikastetxeko irakasleen artean. Horretarako, irakasleei lagundu egingo zaie IKTak erabiltzen eta IKTak ikasgai eta etapetara egokitzen.
- Ikastetxeak dauzkan baliabide teknologiko finkoen eta mugikorren ordutegiak eta horiek erabiltzeko moduak proposatzea, bai eta erabilera-arauak ezartzeko proposamenak egitea ere bitarteko informatikoak eta multimedia sistemak dauden gunetarako.

**10.- OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA
IKASTETXEETAN**

Osasun-larrialdiak ikastetxeetan: Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu beharko dute, eta bertan azalduko diete nola **jokatu**.

Segurtasun-laguntzailea. 2 irakas-orduz liberatuko da astean dagozkion funtzioak betetzeko. Prebentzio-zerbitzuak deitutako bileretara joan dadin, ahaleginak egingo dira irakasle horren ez ditzan eduki irakas-orduak astearteetako goizeko 8etatik 11etara.

Zuzendaritzari gogorarazten zaio komenigarria dela laguntzaile-funtzio hori ikastetxean jarraituko duen irakasle bati egoztea, horren lanak koherentzia izan dezan.

Irakasleen prestakuntza prebentzioari buruz: Hezkuntza Sailaren prebentzioari buruzko derrigorrezko prestakuntza betetzeko, 31/95 Legeko 19. artikuluan ezartzen dena, eta langileek lege bereko 29. artikulua betetzen dutela bermatzeko, gutxienez, urtean bi ordu gordeko dira irakasleen prestakuntzarako eta/edo ikastetxerako dedikazio-orduetarako. Prebentzio-zerbitzuak emango du prestakuntza hori ikastetxe bakoitzean, behar adinako aurrerapenarekin adostutako egunetan eta orduetan.

Larrialdi-simulakroak: Gogorarazten dugu derrigorrezkoa dela ikastetxeetan ebaluazio-ariketa egitea, gutxienez, urtean behin.

Ikastetxeetan **tabakoa eta edari alkoholduak** saltzea eta kontsumitzea debekatzen duen indarrean dagoen araudia bermatzeko ahaleginak egingo ditu ikastetxeko zuzendariak, ikastetxeko ikasleen adina eta irakaskuntza-mota edozein direla ere; **ekipoak eta instalakuntzak mantentzeko** ahaleginak ere egingo ditu, hala behar denean.

486/97 Errege Dekretuari jarriki, segurtasunari eta osasunari buruzko gutxienezko xedapenak ezartzen dituenari, lantoki orok edukiko du, gutxienez, **botika-kutxa mugikor** bat, honakoak izango dituena: **desinfektatzeile eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, loturak, esparatrapua, apositu itsagarriak, guraizeak, matxardak eta behin erabiltzeko eskularruak**. Lehen sorospenerako materiala aldizka berrikusiko da, eta iraungi edo erabili ahala, berriz jarriko da.

Gogorarazten da lan-arriskuen prebentzioari buruzko **informazio** guztia aurki daitekeela honako helbide honetan: <http://www.hezkuntza.ej-gv.euskadi.net>, prebentzio-zerbitzuaren atalean; prebentzio-zerbitzuetako teknikoei kontsulta eginez ere lor daiteke informazioa.



PROBINTZIA	ZONA	TELEFONOA
ARABA	1 ZONA	945 01 84 51
BIZKAIA	1 ZONA	94 403 11 92
	2 ZONA	94 403 11 93
	3 ZONA	94 403 11 93
	4 ZONA	94 403 11 92
GIPUZKOA	1 ZONA	943 02 31 74
	2 ZONA	943 20 84 44, 181 ext.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko uztailaren 7a.

HEZKUNTZA-SAILBURUORDEA

Izenpetuta: María Antonia Ozcáriz Rubio